# ttipi ttapa

469

2008ko maiatzaren 1a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



## 04 Konpost makinak Bortzirietan

Hondakin organikoak murrizteko helburuarekin, Bortzirietan egitasmo berritzailea abiatuko da: esperientzia pilotu gisa 80 konpost makina banatuko dira.



## 33 Nafarroako sokatira txapelketan eskualdekoak

Nafarroako Goma Gaineko 4x4 Sokatira Txapelketan eskualdeko bortz talde ari dira. Gizonetan Amaiur A, B eta C eta nesketan Lesakako Beti Gazte eta Amaiur.



BAZTANDARRA KOOPERATIBAREN EKIMENEZ

# 03 Baztangoa gazta-marka sortu da

ARGAZKIA: ONDIKOL

natar PRES

betiko

PVC eta aluminio aroztegia

· PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA · SALMENTA ETA INSTALAZIOA















· NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK

· DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK

· BANAKAKO SOLUZIOAK

· ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK

· ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com betikopvc@terra.es

Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxa: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

## DATUAK...

• 1977an hasi zituen Baztandarra Kooperatibak bere harat honatak. Erratzun sortu arren 1982az geroztik Arizkunen du egoitza. 300 bazkide ditu gaur egun eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: pentsua, ongarriak, gasoleoa...

• 2007an gasnategi berria eraiki zuten, eta aurten, berriz, Baztangoa markarekin gazta berria merkaturatu dute.

• Urtean ardi latxaren 650.000 litro esne ekoiztea espero dute, eta hiru urte barru 80-85 tona gazta egitea dute helburu. Xehetasunen berri eman digu Xabi Ripa kooperatibako kudeatzaileak.



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Xabi RIPA** *Baztandarra Kooperatibako kudeatzailea*

# «Baztango nekazaritza mantendu eta kalitateko gazta egitea dira helburuak»

Gurutze PIKABEA

**Nolatan sortu zen Baztangoa gazta egiteko asmoa?**
Orain dela lau bat urte sortu zen, bertako lehengaiei bertze balore bat emateko helburuarekin. Orduko juntan sortu zen komertzializatzen hasteko ideia eta denborarekin garatu egin dugu. Berez joan den urte akaberan hastekoak ginen Baztangoa gazta merkaturatzen baina azkenean gasnategi berriko obrak tarteko, hilabete bat gibeleratu zen eta urtarril akabera aldera merkaturatu genuen. Produktuaren aurkezpenik oraindik ez dugu egin, eta gasnategiaren inaugurazioirik ere ez, baina momentuz harrera ona izan dugula erran dezakegu.

**Joan den urtean eraiki zenuten gasnategi berria. Inbertsio garrantzitsua, ezta?**
Bai, hala da. Milioi bat euro inguruko inbertsioaz ari gara. Nafarroako Gobernuari laguntza eskaera ere egin genion eta aurrekontuaren %30eko dirulaguntza eman digu. 300 bat bazkide ditu kooperatibak eta denek parte hartu dute egitasmo honetan.

**«%100ean Baztango ardi latxaren esnearekin egina da, modu tradizionalean, inolako tratamendu termikorik gabe. Ez du ez kontserbatzailerik eta ez koloratzailerik ere»**

**Zertan bereizten da zuen gazta?**
Bertako gazta dela, kalitateko gazta. %100ean Baztango ardi latxaren esnearekin egina da, Baztandarra Kooperatibako bazkide diren artzainen esnearekin egina. Gainera, artzainen modu tradizionalean egindako produktua da, inolako tratamendu termikorik gabe. Ez du ez kontserbatzailerik eta ez koloratzailerik ere, lau osagai bertzerik ez baititu: esnea, gatzagia, hartzigarria eta gatza.

**Zein da Baztangoa markaren helburua?**
Alde batetik, kalitateko gazta baten premia betetzea da, Baztango esneari balio erantsia emanez. Eta bertzetik, berriz, Baztanen aspalditik bizitzeko modu bat izan dena ez galtzea, Baztango nekazaritza mantentzea, alegia.

**Zenbat gazta ekoiztea da zuen helburua?**
Urtean 80-85 tona gazta ekoiztera ailegatu nahi dugu, eta horretarako 650.000 litro esne produzitu beharko ditugu.

**Ateratzen duzuen esne guztia gazta egiteko bideratuko duzue?**
Merkatuaren eskaeraren arabera egokituko dugu gure eskaintza. Momentuz esnea bere horretan bertze kooperatiba batzuei saltzen diegu, dena gaztak egiteko erabili gabe.

**Etorkizunera begira, zein egitasmo dituzue?**
Bertze produktu batzuk komertzializatzeko ideiarekin gabiltza, denak ere Baztangoa markaren barrenean. Esnearekin egindako bertze produktuak edo haragia landuz egindakoak izanen ziratekeen. Nekazaritzaren egoera zein den ere ikusi behar da, nekazaritza gaizki badoa guk ere arazoak izan baititzazkegu. Baina momentuan ona da kooperatibaren osasuna eta gu ere indartzeko helburu horrekin ari gara lanean.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

**Virginia Arburua etxalartarrak etxe atarian paratua duen konpost makinari probetxua ateratzen dio. Hondakin organikoak zaborretara bota beharrean bere konpost makinara botatzen ditu.**

# Zabor organikoa murrizteko konpost makinak banatuko dira Bortzirietan

## Proba pilotuak eginen dira 80-100 etxebizitzetan

**Etxeko sukaldean sortzen den zabor organikoa ongarri bihurtu. Horixe bera egiten du konpost makinak. Zaborra tratatzeko modu azkarra eta merkea dela diote adituek. Sukaldean materia organikoak gainerakoetatik bereizi eta makinara bota, egunero nahasi eta lau asteren buruan konposta egiten du, ongarria, alegia. Eta lorategi eta baratzeetara botatzeko prest. Europar Batasuneko araudiaren arabera, 2016. urterako erdira jautsi behar du zabor kopuruak, eta bide horretan ari dira Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatean. Berriki birziklatzea bultzatzeko poltsa bereziak banatu zituzten bortz herrietan. Orain, berriz, zabor organikoa murriztu nahi dute, eta horretarako konpost makinekin proba pilotuak eginen dituzte Arantza, Igantzi, Etxalar, Lesaka eta Berako 80-100 bat etxebizitzetan. Dohainik banatuko dira konpost makina horiek, eta konpostajea nola egiten den azaltzeko erabiltzaileei ikastaroa ere eskainiko zaie. Heldu den urtetik aitzinera izanen da hori. Proiektuaren inguruko xehetasunak azaldu dizkigu Patxiku Irisarri Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko lehendakariak.**

**Gurutze PIKABEA**

Gero eta gehiago birziklatzen da, baina aldi berean gero eta zabor gehiago produzitzen da. Gaur egun, etxean sortzen dugun zaborraren ia %45a zabor organikoa da, sukaldeko soberakina, eta zabor hori edukiontzietara joaten da neurri haundi batean bederen. Horri irtenbidea eman nahian, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak heldu den urtetik aitzinera eskualdean berritzailea den egitasmoa paratuko du abian. 80-100 etxebizitzetan konpost makinak doan banatuko ditu proba egiteko, eta zabor organikoa ere aprobetxatzen ahal dela erakusteko. Makina horrek ongarria sortzen du eta hori baratze eta lorategietarako erabilgarria da. Helburua, zaborra murriztu eta poliki-poliki ohitura hori hedatzea da.

Esperientzia pilotu horretan parte hartu nahi dutenentzat zerrenda bat



## Patxiku IRISARRI Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko lehendakaria

**Zabor organikoa murrizteko, etxeko konpostajea bultzatuko duzue Bortzirietan...**
Orain arte zabor guztia edukiontzietara botatzen genuean. Baina zaborren %45a janariaren soberakina da, zabor organikoa, eta etxeetan aprobetxatu daitekeena. Bortzirietako Mankomunitatekoak Izarbeibarkoarekin harremanetan jarri ginen han halako proiektua martxan paratua zutelako. Hura ikusi eta erabaki dugu proiektu pilotu bat egitea Bortzirietan. 80-100 etxeetan konpost makinak paratuko dira, zabor organikoa ere aprobetxatu daitekeela ikusteko, ongarri bezala landa eta lorategietan erabil daiteke.

**80-100 bat konpost makina doan banatuko dira...**
Irail aldera iragarriko dugu egitasmoa. Hortik hasita, jendeak izen emateko zerrenda zabalduko dugu, eta bortz herrietan banatuko ditugu. Behin banaketa egitean, hautatutakoei ikastaroa emanen zaie, konpostajea nola den azalduz. Baten bat pisu batean bizi bada, ez diogu halako konpost makinarik emanen. Non sartuko du bertzela? Baina eraikin batekoak interesatuak baldin badaude, eta ondoan hori paratzeko tokia baldin badute, beraiei ere emanen diegu proiektuan parte hartzeko aukera. Printzipioz lur mutur bat eduki behar dute.

**Nolakoa da konpostajearen prozesua?**
Zabor organikoa makinara bota eta zaborra bera kontsumitzen joaten da, lurra bezala bihurtzen da. Azken batean prozesu naturala da, ez da argindarrik behar. Basoan zuhaitzen hostoak erortzen direnean, kontsumitzen joaten dira ongarri bihurtu arte. Hemen ere, modu artifizialean baina sitema bera da. Ongarri hori gero edozein gauzetarako baliagarria da. Poliki-poliki lehengora bueltatzen ari gara. Garai batean etxeetan zabor organiko aunitz aprobetxatzen zen, aziendei botatzen baitzen. Ez zen zaborretara botatzen. Orain, berriz ere, aprobetxatzen ez duguna aprobetxatzea nahi dugu. Azken batean lehengo ohituretara bueltatzea da.

*«Zaborren %45a janari soberakina da, eta etxean ongarri gisa aprobetxatu daitekeena»*




irekiko dute eta herrietako biztanleriaren arabera banatuko dituzte konpost makinak. Behin banaketa egindakoan, hautatutako pertsonei ikastaro labur bat emanen zaie, makina behar bezala erabiltzen ikasteko. Gerora, segimendua ere eginen zaie, ongi erabiltzen duten ikusteko, eta okerrik egonez gero, zuzentzeko.

Zabor organikoa makinara bota eta zaborra kontsumitzen joaten da. Konpost makina desberdinak daude, baina garrantzitsuena konposta aireztatzea da, eta zaborra botatzen den heinean nahastea, horrela kontsumitzen joanen da. *«Azken batean sistema naturala da. Basoan hostoak erortzean poliki-poliki kontsumitzen joaten dira eta ongarri bihurtzen dira. Hemen ere sistema bera da»*, azaldu digu Patxiku Irisarri Hiri Hondakin Mankomunitateko lehendakariak. Ez dute argindarrik behar, eta usainik ere ez dute sortzen, itxiak direlako eta filtro baten bidez usaina depuratzen dutelako. Gehienez ere, *«usaina makinara sartu aitzinetik izaten da, baina gerora ez»*, baieztatu digu Patxikuk.

Mankomunitateari zenbateko gastua eraginen dion ez dakite zehatz oraindik, baina proiektua Madrilen aurkeztu dute eta han jasotzen duten dirulaguntzaren araberakoa izanen da kostua. Etxeko konpostaren aldeko apostua egin dute Bortzirietan, eta Patxikuk erran digunez, *«erantzun ona»* espero dute.

## TASEN IGOERA

Erabiltzaileek igoera somatuko dute aurtengo tasetan, zehazki Nafarroako Hiri Hondakin Solidoen Partzuergoan dauden 9 mankomunitateetan. Mankomunitate horien artean daude, hain zuzen, Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea eta Baztango Udala. Leitzaldeko herriak ere Partzuergoarekin harremanetan jarri dira. 17,5 eurokoa izanen da urteko tasaren igoera, 1,45 euro hilean. Tasa berri horrekin 1,7 milioi euro bilduko dira aurten, eta horrez gain, Nafarroako Gobernuak 4,4 milioi euro bideratu ditu Partzuergora. Diru horrekin, zabortegiak itxi eta zaborrek orain arte jaso ez duten tratamentua jasoko dute, *«iraunkorragoa den mundu batean bizi ahal izateko»*. Hala diote Partzuergoan. Halere, baliteke hurrengo urteetan tasek goiti egitea, Gobernuak laguntza murriztuko duela iragarri baitu. Etorkizunean Nafarroan hiru transferentzia planta eraikiko dira, horietatik bat Oronoz-Mugairin. Planta horietan zaborra banatu eta konprimitu eginen da, handik biometanizazio planta batera garraiatzeko. Bitartean Iruñera bideratuko dira eskualdeko zaborrak. Bortzirietan maiatzean hasiko dira aurtengo lehen seihilekoko tasak kobratzen. Gainerako bilketa gastuak berdin mantenduko dira.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**TIRADA:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.net**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea…
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

**2008ko harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 34 € |
| Espainia | 34 € |
| Sara (La Poste) | 52 € |
| Ipar Euskal Herria | 52 € |
| Europa | 52 € |
| Amerika eta Australia | 115 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 27 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**



# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Dantxarinearen inguruan argibide batzuk

Urdazubiko Urtxume udal taldeak nahasmendua eta alarma eragiteko informazioa zeharka eta modu interesatuan ematen duela ikusita, Urdazubiko Udalean gehiengoa duen Azkar taldeak ondoko puntualizazioak egin nahi ditu:

Nafarroako Gobernuko Herri Lan Departamentuak bere garaian Urdazubiko Udaleko ordezkariei jakinarazi zien, Dantxarineako zeharbidean egin beharreko lanak babestu eta lagunduko zituela, eta ez balizko saihesbidea.

Urdazubi Udalak, Urtxume taldearen kontrako botoekin, Dantxarineako merkatari gehienen nahiari eta interes orokorrari so eginez, behin betiko onartu zuen Dantxarineako zeharbidea hobetzeko proiektua, egitasmo horrek Dantxarineako trafikoa eta Zugarramurdirako sarbideen egoera hobetuko dituela ziur dagoelako, baita eskualdeko merkataritza mantendu eta indartuko duela ere. Horrez gain, Dantxarineari irudi hobea emanen dio; beraz, Urdazubiri ere bai.

Urtxume taldea hainbertze arduratzen duen finantzazioari dagokionean, argi utzi nahi dugu zeharbidea hobetzeko 3.279.486,37 euroko aurrekontutik, 2.800.000 euro Nafarroako Gobernuko departamentu diferenteetatik eta bertze laguntzei esker lortuko direla.

Hori hala, Udalak 500.000 euroko gastua hartu beharko du bere gain. Baina kontua da, Dantxarineako komertziante ia guztiekin —batekin izan ezik— diru kopuru hori eurek bideratuko dutela dioen ahozko akordioa egina dagoela.

Proiektuaren kostua eta gainerako zerga guztiak aipatutako aurrekontuaren barne daude.

Eginen dena zeharbidea izanen denez —eta ez saihesbidea–, ez da desjabetzerik eginen, lurren jabeekin adiskidetasun akordiora ailegatu garelako.

Edonola ere, Urtxume taldeak aspaldidik ezagutzen ditu kontu eta aurrekontu hauek. Ulertezina da nahasmendua sortzeko eta ezagutzen ez ditugun interesengatik bide hori hartu izana, Dantxarineako komertzianteen eta Urdazubiko herriaren alde lan egin beharrean.

**Urdazubiko Udaleko AZKAR taldea**

## BREA, KEA: PNV, ONIN eta EA.

Tabakoa erretzea galarazita dago nonahi; gure hobe beharrez, noski !!. Gure osasuna zaintzeko, bizi-kalitatea, ingurugiroa, aire garbia,... baina brea labea jarri behar digute.

Brea ? Labea? Non?... Alkaiagan, etxe atarian. Baina lasai, dena legala da gero ! Hau ere legala. Legala izanen da, zuek legalizatu duzuelako.

Bi miloi pezeta eskaini omen dizkizuete, diotenez; 12.000 euro eta brea pixko bat. 12.000 euro ziztrin. Gargero, zenbat halako, zenbat aldiz 12.000 euro gastatu ote ditu haundikeritan Lesakak?

Brea behar omen da, bide berriak egiteko. Alegia, badakigu behar dela. Baina Berako herri sarreran? Ez zen toki hobeagorik? Hau da tokirik egokiena labe bat jartzeko, galipota+betuna+petrolioa, tximinetik kea dariela? Gure lehio parean, 700 biztanle bizi geranon etxeko ate-atean ?

Garbia omen da. Ez omen du inongo kalterik. A, ez ? Kalterik ez badu, zergatik bidali dituzte aintzinean hartuta toki guztietatik? Zergatik ez duzue orduan Luberrondon hartu zeuek, hortxe daukazue pabeloi ederra huts-hutsik. Edo agian hobe Zambran, txatarreria bihurtzen ari den zelaian? Aukera ederra. Hain garbia baldin bada brea labea !

Progresoa omen, aurrerapena. Aurrera ? Norentzat aurrera, noruntz?. Aurrera ez dakit, pena bai. Pena, penagarria: toki egokiagoa bila zitekeelako honentzat; dena onartu diozue ORSAri, umil eta men. Auzotarrekin berriz ihesean, egia gordeka, isilka.

Eta Berako Udala? Berako gure Udala *missing* dago, lotan, galdurik agian? elkarren zelotan mokoka seguru.

**Berako Agerra auzotik, haserre.**

## ...Hire begi beltzei begira,

Itxi-idekitze batian doa ixtorioa, betazalen bettigoitzian, argia itzali-bixtian. Buelta ematten dugunin ideki, goittu eta bixtutako gugia exkax bezala gelditzen da. Hire beso zurtenak fuerte estutu eta tira eginen nikek, ez haut hor utzi nahi. Bortz minutuen harat-hunat ba-

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maixan eta Véronique
SARA

LA VILLA
JATETXEA
IGANTZI • Tfnoa: 948 63 72 90

tin nere aitzinin bizitzako pasarte guziak desordenatuak tita pasatzen zaizkidak. Ilusiua, indarra, desiua,… egunero irri bat ernatzen diguna gure esku eztagola sentitu diat. Hire irria kaosaren asotsan dagon arrasto garbi eta sinesgarriena dela ikusirik laketzea lortu diat. Bertze behin eginen diat, asnasia hartu eta barrena lasaituz hurrengo bisita indar guziz desiatzia bakarrik gelditzen zaidak. FALTAN BOTATZEN HAUGU.

**Senide bat**

## Erredakzioaren bi ohar

· Lesakako Maderas Etxebeste lantegiak argitu nahi izan du, apirilaren 7an Lesakan izandako lan istripuan hil zen Alfonso Ariztegi Aldabe urroztarra ez zela Etxebeste lantegiak kontratatua.

· Bertzalde, aitzineko aldizkariaren erreportajean, Baztango Kirol Taldeko lehen presidentea Rosa Altzugarai izan zela adierazi genuen. Lehen presidentea, ordea, Rosa Altzugarairen ama, Rosa Galarregi izan zen. Barkatu eragozpenak.

## OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

## • 11 GALDERA LABUR •

**Zein da ilea eder mantentzearen sekretua?**
Beti zaindua mantentzea; behar denean moztuz, kolore egokiak emanez eta tratamendu egokiak eginez.

**Jendeak mirarririk eskatzen du ileapaindegian?**
Batzuetan bai, baina ezin denean ulertzen saiatzen dira, edo hori erraten dute.

**Baxua, saxofoia, trikitixa, txalaparta. Baten bat falta da? Eta bat aukeratzekotan zein?**
Bai, pandereta. Ezin da aukeratu, denak gustura jotzen ditut; baxua eta txalaparta gehienbat, azken boladan jotzen ditudanak direlako agian.

**Musikatik bizitzeko aukera izanen bazenu, zer eginen zenuke?**
Zaila da baina musikaren bidea segituko nuke, ile-apaintzaile lana ahazten utzi gabe.

**Rocka, punka... Nola definituko zenuke Kaskezurren musika?**
Rockan oinarrituta daude kanta guztiak. Denak desberdinak dira baina denek ere badute bertze estiloetako puntu bat.

**Lehen txarangan, gero berbenan eta orain Kaskezurren. Estilo diferenteko musika...**
14 urterekin txarangan, 16rekin Gorramendin eta gero Kaskezur. Aldaketa momentuaren arabera etorri da, beti gustatu zaidana eginez.

**'Itzulera kapsularik gabe espaziora bidalitako azken zakurrak'. Izen hori nondik dator?**
Zakur bat bidali zuten espaziora. Denei sinetsarazi nahi zioten zakurra bueltatuko zela, beraiek jakinda ez zela itzuliko. Hortan oinarritu gara.

**Inguruko jendeak zerekin dantzatzen du gehiago, rockarekin edo trikitixarekin?**
Dantzatu trikitixarekin. Rockarekin gehiago kostatzen zaie mugitzea.

**Sunbillako txokorik politena?**
Igantzi alderako trenbidean dagoen kaskada.

**Dantzan, Antrotokin... Besta onak izateko lan aunitz egin behar da?**
Bai, lan eta pazientzia haundia, baina ahaleginekin dena lortzen da.

**Zer dute faltan eta zer soberan Sunbillako bestek?**
Faltan rock kontzertuak eta soberan deus. Beti antolatu daitezke ekitaldi gehiago.



**Ainara IBARRA**
*Sunbillako gaztea*












DIRULAGUNTZAK

# Aparteko 600.000 euro banatuko ditu Gobernuak eskualdeko udaletan

Nafarroa osoko udalerrien artean 10 milioi euro bideratuko ditu

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak aparteko laguntza bideratuko du aurten Nafarroako Udaletara. Guztira 10 milioi euro banatuko ditu, eta horietatik 603. 570,47 euro eskualdeko herrietan eginen ditu. Laguntza herri bakoitzaren biztanleriaren arabera banatuko da, herrien finantzazio bideak hobetzeko helburuarekin. Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuetan oinarritu dira, 2007ko urtarrilaren 1ean herri bakoitzak zuen biztanle kopurua aintzat hartuz, hain zuzen. Amelia Salanueva Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Departamentuko kontseilariak apirilaren 11n egindako aurkezpenean erran zuenez, biztanleriaz gain, *«justizia eta proportzionaltasun-irizpideak»* ere aintzat hartu dituzte banaketa egiterakoan.

Ondoko taulan eskualdeko herri bakoitzak 2007ko lehen egunean zuen biztanleria eta Gobernuaren aparteko laguntza honekin jasoko duen diru kopurua ageri dira.

| HERRIA | BIZTANLERIA 2007an | LAGUNTZA |
|---|---|---|
| ARANO | 127 | 2.904,75 € |
| ARANTZA | 648 | 14.821,09 € |
| ARESO | 288 | 6.587,15 € |
| BAZTAN | 7.847 | 179.476,96 € |
| BEINTZA-LABAIEN | 258 | 5.900,99 € |
| BERA | 3.684 | 84.260,62 € |
| BERTIZARANA | 662 | 15.151,30 € |
| DONAMARIA | 420 | 9.606,26 € |
| DONEZTEBE | 1.522 | 34.811,26 € |
| ELGORRIAGA | 219 | 5.008,98 € |
| ERATSUN | 168 | 3.842,50 € |
| ETXALAR | 801 | 18.320,51 € |
| EZKURRA | 186 | 4.254,20 € |
| GOIZUETA | 815 | 18.640,72 € |
| IGANTZI | 606 | 13.860,46 € |
| ITUREN | 477 | 10.909,97 € |
| LEITZA | 2.889 | 66.077,35 € |
| LESAKA | 2.770 | 63.355,57 € |
| OITZ | 154 | 3.522,30 € |
| SALDIAS | 120 | 2.744,65 € |
| SUNBILLA | 662 | 15.141,30 € |
| URDAZUBI | 348 | 7.959,47 € |
| URROTZ | 183 | 4.185,58 € |
| ZUBIETA | 309 | 7.067,46 € |
| ZUGARRAMURDI | 226 | 5.169,08 € |
| **Guztira** | **26.389** | **603.570,47** € |

ERREPIDEAK

# N-121eko Sunbilla-Bera arteko obrak ia geldirik

ttipi-ttapa

Mugimendu gutti somatzen da azkenaldian Sunbillatik Bera arteko N-121eko obretan. Errepide zati hori hiru enpresen artean osatutako aldi baterako elkarte batek egitekoa da, baina **ttipi-ttapak** jakin duenez, ez dute hasieran hitzartutako enpresek eginen. Enpresa horietako batek obra bertan behera utzi zuelako zurrumurrua zabaldua zen eskualdean. Eta hala izan da. Nafarroako Gobernuko Herri Lan Departamentuak **ttipi-ttapari** adierazi dionez, lurra mugitzeaz arduratzekoa zen Ecay-Andueza SL enpresak obra uztea erabaki du. Bere ordez, El Masa enpresa arduratuko da lurra mugitzeaz.











## BERA

# Etxebizitza beharrak aztertzeko ikerketa abiatuko du Udalak

### Maiatzaren 5etik aitzinera etxez etxe inkestak eginen dira

**ttipi-ttapa**

Hirigintzaren alorrean Berak dituen gabeziak eta beharrak aztertzeko asmoz, Udalak etxebizitzen inguruko ikerketa bat abiatuko du laster. Herritarrek somatzen dituzten behar horiei erantzuna ematea da helburua, nolako etxeak eta non nahi dituzten jakitea. Maiatzaren 5etik aitzinera etxez-etxe inkestak eginen dira.

### Sanesteban Besten kartela

Berako Kultur Batzordeak antolatuta, aurtengo Sanesteban Bestetako kartel lehiaketa abian da. Urtero bezala, nahi duten guztientzako zabaldu dute lehiaketa, eta nahi hainbertze lan aurkeztu ahal izanen ditu bakoitzak. Azalean *Sanesteban Bestak 2008* testua agertu beharko da, eta kartelak kolorezko formatuan eta paperean argitaratua izan beharko du.

Lanak aurkezteko epea maiatzareko 16ko eguerdian bukatuko da, eta Herriko Etxera jo beharko da horretarako. Aurkezterakoan lanaren gibelean goitizen bat paratuko beharko da, eta aparteko gutun-azalaren kanpoko aldean ere goitizen hori idatzita joanen da. Barrenean, berriz, egilearen datuak.

Kultur Batzordeak izendatuko du epaimahaia eta bestetako programan erabiltzeko eskubidea bere gain hartuko du. Sarituak 400 euro jasoko ditu, baina sarituak ez diren lanak ere Udalak ez ditu itzuliko.

### Antzerkia maiatzaren 24an

Euskara Batzordeak antolatuta, Kanpingags talde ezagunaren antzerkia ikusteko aukera izanen da Kultur Etxean maiatzaren 24an. *Hor al zaude* du izena saioak eta sarrera zazpi eurokoa izanen da. Aktore ezagunen aurpegiak ikusi ahal izanen dira.

### Musika entzunaldia

Isidoro Fagoaga Musika Eskolak biolin, klarinete eta saxofoi entzunaldia antolatu du maiatzaren 19rako. Musika Eskolan izanen da kontzertua 17:00etatik aitzinera.



ARGAZKIA: GOIKO

### *Obrak karriketan*

**Hirurteko Planaren barne sartuak ziren herriko hainbat karriken konponketa lanak hasiak dira dagoeneko. Bertzeak bertze, Uraldea, Hegoalde eta Legia karriketan obretan ari dira, baita igerilekuetarako bidean ere. Bideen egoera hobetzeaz gain, saneamendu sarean ere konponketak eginen dira. Bertzalde, Udaletik aipatu digutenez, herriko saneamendu kolektoreko lanak atzeratu eginen dira. Argazkian Uraldea karrika ageri da, obretan.**



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

### *Juul hauteskundeak Labiaga Ikastolan*

**Apirilaren 23an, Nafarroa osoko ikastolek Juul hauteskundeak egin dituzten liburu eta ilustratzaile gustukoenak zein diren erabakitzeko. Labiaga Ikastolaren kasuan, 3 eta 6 urte arteko A kategorian Ana Sernaren *Perez xagua* izan zen aukeratua, 5 botorekin. 6 eta 8 urte arteko B kategorian Werner Holz Worthen *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxoa*k lortu zituen boto gehien, 3 guztira. 8 eta 10 urte arteko C kategorian eta 10 eta 12 urte arteko D kategorian, berriz, Internet bidez bozkatu zuten ikasleek eta lerro hauek idazterakoan ez genuen daturik bildu.**

ERREKALDE
Ongi pasa bestak!
TFNOA: 948 630 259 BERA

BERA
Zure inguruko klase guztietako insektuz (xomorro, zineurre, armiarma, kakara...) eta arratoi xaguteaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
GOIEKO
Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

Xirgil
Altzate 1 - BERA

LESAKA

# Landazelaiako etxebizitzei buruzko informazio gehiago galdetzeko sinadura biltzea eginen da

Udalean lan egiteari utziko diote Ezker Abertzaleko hautetsiek

Aitor AROTZENA

Landazaleian 340 etxebizitza egiteko proiektua dagoela eta gaiaren garrantziak herritarrei informazioa gehiago ematea eskatzen duela pentsatuz sinadura bilketa kanpaina eginen du Ezker Abertzaleak, apirilaren 25ean prentsaurrean jakinarazi zuenez. Lehenik, eskura duen informazioa zabalduko die herritarrei batzarrean. *«Mila bizilagun gehiagoz solasten ari gara eta horrek bere ondorioak izanen ditu. Herritar guzien artean erabaki beharko genuke herriaren etorkizuna».*

Bertze aldetik, Ezker Abertzaleko hautetsiek, azken hilabeteetako gertaeren ondorioz, Udaleko batzordeetan lan egiteari utziko diotela jakinarazi zuten: *«Ez dugu lanerako baldintza minimorik, informazioa ez ezik hitza ere ukatu zaigu plenoetan...»* zioen Iban Maiak. Oningo zinegotzi baten dimisioarekin gauzak aldatuko zirela uste bazuten ere, ez da halakorik gertatu.



ARTXIBOKOA

***25. urteurrena ospatuko du Akordeoilari Taldeak***

**Argazkian ageri denez, ez da oraintxekoa herriko akordeoilari taldea. 25 urte bete ditu eta hori ospatzeko, mende laurden honetan taldetik pasatu diren musikariek ekitaldi berezi eta hunkigarria osatuko dute maiatzaren 10ean. 18:30ean kalejira eginen dute eta 20:15ean kontzertua Plaza Zaharrean. Maiatzaren 31n, berriz, Enrique Zelaia, Iñaki Dieguez eta Joxan Goikoetxearekin kontzertzua antolatu dute Onin erreka gainean.**

## Antzerki jardunaldiak eginen dira maiatzean

*Keinu-Leihoak* antzerki jardunaldiak antolatu ditu Mairu Antzerki Tailerrak. Maiatzaren 2an, Le petit theatre de pain taldearen *Aulki hutsa* izanen da ikusgai Kasinon, 22:15ean. Maiatzaren 3an, *Ornitorrinkus* eskainiko dute Xabi Erkizia, Maialen Lujanbio, Judith Montero eta bertze antzezleek Kasinoan 20:00etan. Hilaren 17an *Gernika* ikusgai izanen da ikastolako frontoian 23:30ean eta 24an Kale Ekintzaren *Mexico lindo y rebelde* plazan 20:00etan.

## XIV. Rafa Maritxalar lasterketa igandean

Igande honetan, maiatzaren 4ean eginen da Batzoki elkarteak 14. aldiz antolatu duen Rafa Maritxalar Herri Lasterketa. Goizeko 10etan hasiko dira ttikienak lasterka, aurrebenjamin mailatik hasi eta infantil maila artekoak. Euerdiko 12etan hasiko da proba nagusia eta mailaren arabera, 2, 4, 6 edo 8 kilometro egin beharko dituzte korrikalariek. Senior mailetako hiru lehenbiziko sailkatuek, 90, 60 eta 30 euro jasoko dituzte eta bertze kategorietan ere sariak izanen dira.

## 25.Txoko-Txiki ilustrazio eta ipuin lehiaketa zabalik

Tantirumairu ikastolak 25. Txoko-Txiki ipuin eta ilustrazio lehiaketarako deialdia egin du, 6-12 urte arteko ikasle lesakarrei zuzenduta. Ipuinek, maila bakoitzaren arabera, hasiera jakin bat izan beharko dute.

Ilustrazio lehiaketan, gaia, idatzi den ipuinaren azala ilustratzeko marrazkia izanen da. DIN A4 neurrian aurkeztu beharko da. Lan guziak maiatzaren 5a baino lehen ikastolara igorriko dira. Bertzalde, egun berean, irakurketa saioak ere eginen dira ikastolan.

## Esklabutza frankismoan jardunaldiak 12tik 18ra

*Esklabutza Frankismoan* jardunaldiak antolatu ditu Arrano elkarteak Udalaren laguntzarekin. Maiatzaren 12tik 18ra erakusketa ikusgai izanen da Beti Gazte elkartean, 17:00etatik 20:00etara. Maiatzaren 16an, ortziralarekin, solasaldia eta *Francoren esklaboak Piriniotan* dokumental emanaldia izanen da Arranon 20:00etan eta maiatzaren 17an, *Gernika* antzerki emanaldia antolatu da Mairu antzerki tailerrarekin batera ikastolako frontoian, 23:30ean.

## FLASH

### *Guraso Eskola*

Iraingo Guraso Elkarteak antolatuta, *Seme-alaben hezkuntzan oinarrizko trebetasunak eta bizipen emozionala* ikastaroa emanen da hilaren 6, 13, 20 eta 27an Kasinoan 12:00etan. Bertzalde, Iraingo ikasleek margo lehiaketa ere izanen dute maiatzean.

### *Troba Eguna*

Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak eta Barrufet deabru taldeak antolatuta Troba eguna eginen da maiatzaren 10ean. 16:00etan dantza tailerrak eta 21:00etan Barrufet deabru taldearekin kalejira izanen dira.

### *Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa*

Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketara lanak aurkezteko epea maiatzaren 16an itxiko da.

ETXALAR

# 1.850.000 euroko aurrekontua izanen du aurten Udalak

## EAk ez zuen bozkatu, iazko kontuak oraindik ez dituelako ikusi

Joseba eta Nerea

Apirilaren 11n egindako batzarrean onartu zuen Herriko Etxeak aurtengo udal aurrekontua, 1.850.000 euro ingurukoa. Halere, ez zen aho batez erabaki, Herri Taldeak bakarrik onartu baitzuen. EAk, aldiz, ez zuen bozketan parte hartu, aitzinetik 2007ko kontuak ikusi nahi dituztelakoz.

Patxiku Irisarri alkatearen arabera, inbertsiorik potoloena eskolarena izanen da. Iaz 164.000 euro gastatu baziren, aurten 140.000 euro eginen dira. Horrez gain, igerilekua legediari egokitzen 60.000 euro gastatuko dira; Kultur Etxean igogailua paratuko da; Zabaleta mendiaren zati bat erosteko 80.000 euro bideratuko dira eta pistatan 300.000 euro. Bertzeak bertze, Mendiondo, Jonperon, Uzkaitz, Urtxaine eta Bagokobordarako pistendako izanen da. Mendian landaketa eta garbiketan 120.000 euro inbertituko dira.

EAk, bere aldetik, Nafarroako Kontu Ganbarari Udalaren egoera ekonomikoaz auditoria eskatu dio. Arantxa Zubieta EAko zinegotziaren hitzetan, *«aspaldian gabiltza iazko kontuak eskatzen eta ez dugu lortu»*. Alkatea ez da auditoriaren aldekoa: *«kontuak ongi ordenatuak baitaude»*.

**INDUSTRIALDEA**

Arrakoizko industrialdeko hitzarmenak ere piztu du Herri Taldearen eta oposizioaren arteko eztabaida. Arrakoitz aldean industrialdea egiteko sinatu den hitzarmena urbanistikoa dela argitu digu Patxikuk, *«industrialdea hasteko lehen harria»*.

Hitzarmen horren arabera, promotoreak Udalari %10a zedituko dio, eta Arrakoitz baserria ere bere esku geldituko da.

EA, berriz, hitzarmena herriaren interesen kontrakoa eta pribatuaren aldekoa delakoan dago, *«%10az eta Arrakoitz baserriaz gain, aparteko etekina ere atera zitekeelako»*. Irisarrik, aldiz, argi du herriarentzat ahal zen guztia eskatu dutela: *«Orain eskuratuko den %10az gain, industrialdeak sortuko duen aberastasuna ere herriaren onerako izanen da»*.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

***Landagain eskolako eraikuntza berria***

**Landagain Eskolaren handitze-lanak ziztu bizian doazi aitzinera. 150 metro koadroko hiru planta egin dituzte, heldu den urteko ikasturtean estreinatzeko. Aurtengo aurrekontuen barrenean, hau da Udalaren proiektu nagusia.**

FLASH

### *Altxata kultur elkartean aldaketan*

Apirilaren 13an Altxata kultur elkarteak batzar orokorra egin zuen Kultur Etxean. Bertzeak bertze, junta berritzeaz gain, kide gehiago sartu ziren. Oraindik ez dira karguak banatu, baina hauek dira momentuan zuzendaritza batzordea osatzen dutenak: Garazi Lujua, Arantxa Danboriena eta Garbiñe Maia. Eta berriak Mireia Martinez, Onintze Zinkunegi, Leire Olagarai eta Xabier Etxarte.

### *Janari eko-energetiko ikastaroa*

Larraburua Elkartearen eskutik, Jone Arrospidek janari eko-energetikoaren inguruko ikastaroa emanen du maiatzaren 7tik ekainaren 25era. Asteazken goizez eginen da, eta izen ematea elkartean egin beharko da.

### *'Kantu aitzakia'*

Maiatzaren 9, 10 eta 11n arnasketa, bokalizazioa, espresioa, poesia eta dramatizatzearen inguruan ariko da Amaia Zubiria abeslari ezaguna Mokorreko Bordan eginen den ikastaroan. Izena 609 115956 edo 618 303582ra deituta eman behar da.









ARANTZA

# Asier Apezetxea liderra da Euskadiko Open Spiuk txapelketako sailkapenean

## Openeko hurrengo saio puntuagarriak Irurtzunen eta Tolosan eginen dira

**Nerea ALTZURI**

Garaipenez garaipen dabil mendi bizikletan aditua den gaztea. Elite mailako sailkapenean Conor-Saltoki taldeko txirrindularia goian dago sailkapen orokorrean. Euskadiko Open Spiuk Centros BTT delako txapelketaren lasterketa aitzinera doa eta Asierrek hagitz emaitza onak lortu ditu.

Aitzineko alean adierazi genizuen moduan, apirilaren 6an Arazuriko lasterketa irabazi zuen. Joan den apirilaren 20an, berriz, Arkalandan, Erandion (Bizkaia) egindako lasterketa puntuagarrian ere garaile atera zen. Proba zinez gogorra eta luzea izan zen kirolariarentzat, egindako euriteen ondorioz, lohia haundia baitzegoen. Horrek, noski, zailtzen du berez aski gogorra den txirrindularien lasterketa. Halere, kontent egoteko moduan dago Asier, Openeko lidergoa oraingoz berea baita.

Hurrengo proba puntuagarriak larunbat honetan, maiatzaren 3an Irurtzunen; eta bertzea maiatzaren 11n Tolosan korrituko dira. Zorte on!

### Keltiar Aldea

Maiatzaren 17an, larunbatarekin, Udaberriko Biraren barne, Keltiar Aldea talde nafarrak emanaldia eskainiko du ilunabarreko 8etan, frontoian.

1999an sortu zen euskal talde hau eta estilo propioa jorratzen baldin badu ere, zeltiar musikan oinarritzen da bere lana. Euska l Herrian, Kantabrian eta Asturiasen emanaldi, jaialdi nahiz lehiaketetan parte hartu du. 1999an sortu arren, 2001ean hiru kidek taldea utzi zuten, eta urte batez ez zuten kontzerturik eman. Geroztik lanean ari dira eta disko bat ere kaleratu dute.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Neska-mutilak herri kirol jolasetan

**Nafarroako Herri Kirol Jolasen hirugarren jardunaldia herrian jokatu zen apirilaren 20an. Denboraldi honetan, kimuen eta kadeteen mailan ari diren gaztetxoak argazkiko horiek dira. Panttaleon Errandonea eta Jose Ramon Amoros prestatzaileekin ageri dira.**

## FLASH

### 120 zabor poltsa

Apirilaren 10ean eta 11n Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak egindako kanpaina herrira ailegatu zen. Zaborra bereizteko sentsibilizazio kanpainaren barne, poltsak banatu dira Bortzirietan, eta zehazki herrian 120. Dagoeneko etxeko sukalde txoko aunitzetan izanen dira.

### Moda desfilea

Maiatzaren 24an, larunbata, moda desfilea eginen da Aterpen. Amaia Apezetxea ileapaintzaileak antolatuta, tenoreko tendentziak ikusgai izanen dira. Gazteen modan oinarrituko da eta 20 bat neska-mutilek parte hartuko dute. Ile orrazkera, mozketa eta koloreak erakutsiko dira. Mezaren aitzinetik eginen da, eta xehetasun gehiago hurrengoan emanen dugu.

### Mendi Itzulia

Hurrengo aldian, maiatzaren 18an egin beharreko Mendi Itzuliaren gaineko xehetasunak mamituko ditugu. Aurten gainera, Ternida Eguna egun horretan da, eta ohitura haundia dago gure herrian ere. Beraz, mendi gainetan jende multzoa bilduko gara.






IGANTZI

# Euskara Batzordeak antolatuta Udaberriko Bestak eginen dira ortzegunetik igandera

## Ortziralean, maiatzak 2, Igantziko maparen aurkezpena eginen da

ttipi-ttapa

Igantziko Euskara Batzordeak, azken urteotan egin izan duen bezala, aurten ere Udaberriko Bestak prestatu ditu, kultur ekitaldiz beterik. Ortzegunetik igandera, maiatzaren 1etik 4ra bitartean izanen dira. Hasteko, maiatzaren 1ean, ortzegunarekin, 17:00etan haurrentzako filmak izanen dira eskolako gimnasioan; lehen filma txikienentzat izanen da, eta bigarrena 8 urtetik goitikoentzat.

Hurrengo egunean, maiatzaren 2an, ortziralarekin, 17:00etan eskolako ikasleen antzerki emanaldia izanen da Baratzondon. Azken hilabeteotan eskolako Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak antzerkia lantzen aritu dira, Joxelu Berasategi beratarrarekin, eta egun horretan prestatu duten antzezlana eskainiko dute herritarren aitzinean.



ARTXIBOA

**Eskolako ikasleek aurten ere euren saioa eskainiko dute Udaberriko Bestetan. Argazkia duela hiru urte ateratakoa da.**

Egun berean, 19:30ean eta Eskolzarren, herriko maparen aurkezpena eginen da, beheitiago azalduko dugun moduan.

Biharamunean, maiatzak 3, larunbata, 5etan hasita eskolako ikasleen bideo emanaldia eta erakusketa izanen da, gimnasioan. Ondotik, 18:00etan, herriko bertso eskolako ikasleen saioa izanen da. Egun berean, 21:30ean, Igantziko Biltoki elkarteak antolatutako barrikotea izanen da.

Maiatzaren 4a izanen da ekitaldi hauen azken eguna. Igande horretan 16:30ean hasiko dira ekitaldiak, eskolako ikasleen irakurketa saioarekin eta ikus-entzunezkoekin. Bukatzeko, 18:00etan Baratzondon Patxin eta Potxin pailazoen saioa izanen da.

### Herriko maparen aurkezpena

Azken bi urteotan Igantziko Euskara Batzordea herriko maparen proiektuarekin ibili da. Hasiera batean mapa finantzatzeko bideak aztertzen aritu ziren, eta hori konponduta, proiektuari hasiera eman zitzaion. Kirru Sarobe lesakarrak bere burua eskaini zuen mapa egiteko, eta berarekin batera, Oskar Txoperena ere lan horretan aritu da; izan ere, azken urteotan herriko artxibategi ezberdinak aztertzen aritu ondotik, toponimiari edo toki izenei buruzko informazio aunitz bildua zuen, eta mapa honek aukera paregabea ematen du informazio hori guztia bertan txertatzeko.

Mapa prest da dagoeneko, eta maiatzaren 2an, Udaberriko Bestak aprobetxatuz, aurkezpen publikoa eginen da, 19:30ean Eskolzarren. Bertan antolatzaileek eta egileek eurek mapa nola eta zergatik egin den azalduko diete bertaratzen diren herritar guztiei, eta maparen ale bana emanen diete.

Edozein kasutan, batzordeak etxe guztietara banatuko du maparen ale bana ondoko asteetan. Hortik aitzinera, salgai paratuko da.



ARRANTZA

# Bidasoako 'Lehenbizikoa' atera du Hondarribiako Jose Luis Lopezek

Apirilaren 16an arrantzatu zuen, bere hirugarren 'Lehenbizikoa'



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

**Jose Luis Lopez hondarribiarra aurtengo lehendabiziko izokina eskuan duela, *Lehenbiziko* deitutakoa, alegia.**

**ttipi-ttapa**

Apirilaren 16an, denboraldi honetako Bidasoako lehendabiziko izokina arrantzatu zuen Jose Luis Lopez hondarribiarrak Endarlatsan, *Lehenbiziko* izena hartzen duena, hain zuzen. Ohore handia izaten da lehen alea harrapatzea eta beti ikusmin handia pizten du arrantzale eta oro har jende guztiaren artean. Lehenagokoek eguraldi ederra egiten zuenean ez zela arrantzatu behar erraten zuten, baina apirilaren 16ko eguraldi ederra ikusita bertzelakorik erran daiteke.

Goizeko 8ak baino lehen harrapatu zuen 69 urteko hondarribiarrak 4 kilo eta 400 gramo eta 75,5 zentimetroko izokina. Denboraldi honetakoarekin, hirugarren *Lehenbizikoa* harrapatu du Lopezek. Lehenengoa 2000. urtean arrantzatu nuen, bigarrena orain dela bi urte eta apirilaren 16an hirugarrena. Iruñeko Hartza jatetxeak izokina erosteko interesa agertua omen zuen orduko.

Urteroko ohiturari segituz, Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteak oroigarria banatu zuen. Elkartearen izenean, Fran Agarak *Lehenbizikoa* arrantzatu izanaren saria eman zion hondarribiarrari.



Bortzirietako
Hiri Hondakinen
Mankomunitatea

# Jakinarazten dut

**2008ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:**

## 2008ko TASAK

### ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

| KONTZEPTUA | BILKETA TASA | PARTZUERGOKO TRATAMENDU TASA |
|---|---|---|
| | Euro/Urteko | Euro / Urteko |
| Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez | 72,60 € | 17,50 € |
| Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak | 61,70 € | 17,50 € |
| Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak | 50,80 € | 17,50 € |
| **1. Merkataritza eta zerbitzuak.** Elikagaien eta etxetresnen sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegiak, okindegiak, ileapaindegiak, lan bulegoak | 72,60 € | 22,00 € |
| **2. Merkataritza.** Elikagai dendak (harategiak, arraindegiak, janari dendak), etxetresnen dendak eta farmaziak | 142,40 € | 22,00 € |
| **3. Merkataritza.** Autozerbitzuak | 217,20 € | 22,00 € |
| **1. Ostatua.** Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 $m^2$ko edo gutxiagoko azalera dutenak | 144,70 € | 22,00 € |
| **2. Ostatua**. 30$m^2$ baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak | 289,80 € | 22,00 € |
| **3. Ostatua.** Pub eta diskotekak | 362,00 € | 22,00 € |
| **1. Jatetxea**. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak | 362,00 € | 22,00 € |
| **2. Jatetxea.** Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak | 651,70 € | 22,00 € |

| KONTZEPTUA | BILKETA TASA | PARTZUERGOKO TRATAMENDU TASA |
|---|---|---|
| | Euro/Urteko | Euro / Urteko |
| **Landetxeak.** | 145,20 € | 22,00 € |
| **Landetxeak.** Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak | 123,50 € | 22,00 € |
| **Landetxeak.** Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak | 101,60 € | 22,00 € |
| **1. Hostala.** 10 logela edo gutxiago | 506,60 € | 22,00 € |
| **2. Hostala.** 10 logela baino gehiago | 723,90 € | 22,00 € |
| **Merkataritzako saltokiak**, opariak bakarrik saltzeko | 361,50 € | 22,00 € |
| **Merkataritzako saltokiak**, janaridenda edota ostatudunak | 723,90 € | 22,00 € |
| **Merkataritzako saltokiak**, jatetxedunak | 1.085,90 € | 22,00 € |
| **Lantegiak**, lau langile bitarte | 72,60 € | 22,00 € |
| **Lantegiak**, 5-10 langile bitarte | 144,70 € | 22,00 € |
| **Lantegiak**, 11-30 langile bitarte | 362,00 € | 22,00 € |
| **Lantegiak**, 31-60 langile bitarte | 723,90 € | 22,00 € |
| **Lantegiak**, 60-150 langile bitarte | 1.085,90 € | 22,00 € |
| **Lantegiak**, 150-300 langile bitarte | 2.057,60 € | 22,00 € |
| **Lantegiak**, 300 langile baino gehiago | 3.032,80 € | 22,00 € |
| Norberaren erabilerarako edukiontzia | 703,50 € | 22,00 € |

### ORDAINTZEKO ERA

**Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:**
Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.
**Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:**
Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

### ORDAINTZEKO EPEA

- 2008ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2008ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2008ko apirilaren 1ean
Presidentea, Patxiku Irisarri Elizagoien

TEKNOLOGIA

# Erregistro zibilak informatizatzeko hitzarmena sinatu dute Baztan-Bortziriak eta Leitzaldean

Guztira eskualdeko 25 udalerrik bat egin dute egitasmoarekin

ttipi-ttapa

Baztan-Bidasoaldeko erregistro zibilak informatizatzeko eta online jartzeko hitzarmena sinatu zuten apirilaren 15ean Doneztebeen inguruko udal ordezkariek eta Javier Caballero Martinez Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Kontseilariak. Ekitaldian Arantza, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oitz, Saldias, Sunbilla, Urdazubi, Urrotz, Zubieta eta Zugarramurdiko alkateak izan ziren. Aipatzekoa da apirilaren 9an, hitzarmen bera sinatu zutela Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako udalek ere, Irurtzunen egindako ekitaldian.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Baztan-Bidasoako udal ordezkariak hitzarmena sinatu zuten egunean, Javier Caballero Gobernuko ordezkariarekin batera.**

Erregistro zibilak informatizatzeak onura nabarmenak ekarriko dituela nabarmendu zuen Caballero kontseilariak, eta eskerrak eman zizkien udalei, prozesuan parte hartu izanagatik. Nafarroako erregistroak informatizatzeko prozesuak 901.760 euroko kostua du. Nafarroako Gobernuak 541.056 euro jarriko ditu, eta gainontzekoa Estatu Espainiarreko Justizia Ministerioak eta Red.es entitate publikoak ordainduko du. Gaur egun, egoera zibilarekin zerikusia duten datuak, jaiotzak, ezkontzak edo heriotzak, bertzeak bertze, eskuz jasotzen dira erregistroetan dauden liburuetan.

### Formazioa eta bitartekoak

Behin akordioa sinatuta, udalerrietako erregistro zibilak informatizatzeko prozesua abiatuko da. Nafarroako Gobernuak ordenagailu bat eta inprimagailu bat paratuko du udal bakoitzaren esku. Ordenagailuak INFOREG programa izanen du, erregistro zibilerako prozesu guztiak egiteko erabiliko dena. Eta horrekin batera, erregistro zibilean lanean dauden langileei programa erabiltzeko formazioa eskainiko zaie. Udalen esku egonen da aipatu ordenagailuaren mantenua eta ADSL linea bidezko Internet konexioa ezartzea.

Estatu Espainiarreko edozein erregistroko datuak edozein erregistrotik kontsultatu ahal izanen dira gainera, pertsonaren izen-abizenak teklatuz gero, eta edozein udalek izanen du zertifikatuak momentuan emateko gaitasuna.

Sistema berriak desplazamenduak egitea saihestuko du, baina jakina, horretarako estatuko 7.700 erregistro zibiletan ezarri beharko da sistema. Horretan aitzindari izanen omen da Nafarroa.






EUSKARA

# Ume sortuberriekin euskara erabiltzeko liburuxka kaleratu dute

Nafarroako udaletako euskara zerbitzuen ekimena da

zzzttipi-ttapa

*Duzun onena.* Halaxe du izena ume sortuberrien familiendako Nafarroako udaletako euskara zerbitzuek kaleratu berri duten liburuxkak. Familia umearen babeslekua eta umearen lehen ikastetxea dela iritzita, eta «*gurasoen zeregina haurrak hazten laguntzea delako*» hizkuntzei familian eman beharreko tratamenduaz hainbat gomendio proposatu dituzte argitalpenean. Familia euskaldunentzat eta erdaldunentzat egokia den produktu bezala aurkeztu dute, jarraibideak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idatzirik baitaude. Nafarroako Euskararen Institutuaren laguntza izan du egitasmoak.

Urteak dira euskara zerbitzuek ume sortuberrien familiekin harremana dutela. Alta, material berri hau zaharra ordezkatzera dator eta opari batekin bidaliko zaie familiei, liburua edo lerdezapiarekin, hain zuzen. Horrez gain, eranskailu bat ere igorriko da *Haurrak* hitza daramana.

Aipatu, bertzalde, haurrek urtebete dutenean, *Kontu txikiak* izeneko materiala ematen zaiela, euskarazko jolas eta kantak dituzten liburu eta CD bana, alegia.



UTZITAKO ARGAZKIAK

***Duzun Onena* liburuxkaren aurkezpen egunean euskara teknikariak, tartean Raul Lopez Baztango teknikaria. Behean gidaliburuaren azala ageri da.**




### Liburuaren atalak

Gidaliburuak hainbat atal dauzka. Lehenengoan, familia hizkuntzak ikasteko ezinbertzeko tresna dela nabarmendu dute; bigarrenean, euskara ikasteko baldintza egokienak jaso dituzte, gurasoa euskalduna edo erdalduna bada ere; argibideak hiztegi ilustratu batekin osatu dituzte, haur hizkeran gehien agertzen diren hitzekin.

Hutsegiteak saihesteko aldera, hizkuntza eredu zuzena zein den ere ageri da liburuan. Jolas erraz batzuk ere proposatu dira, euskara erraz erabiltzeko. Ikus-entzunezko bibliografia ere badago gehiago jakin nahi dutenentzat, sehaska kanta, haur musika, jolas, ipuin eta haur hizkerarekin.

Ekimenean parte hartu duten Nafarroako udal eta euskara mankomunitateen artean daude, Baztango Udala, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Mankomunitatea eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea. 2.400 ale kaleratu dituzte familiei bidaltzeko.

## Eskualdeko jendea Euskararen Nafar Kontseiluan

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak kide berriak izendatu ditu Euskararen Nafar Institutuko kontseiluan aritzeko: Jose Pablo Sotes , Nafarroako Unibertsitate Publikoaren izenean; Maria Amor Begiristain, Gurpide Nafarroako Unibertsitatearen izenean; **Andres Iñigo** iturendarra Euskaltzaindiaren izenean; Carmen Lamsfus, Eusko Ikaskuntzaren izenean; Yolanda Barcina, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioaren izenean; Pello Mariñelarena, Nafarroako Ikastolen Federazioaren izenean; eta **Gabriel Inbuluzketa**, Nafarroako Prentsa Elkartearen izenean. Gobernuak bertze bi kide ere izendatu ditu, euskararen aldeko kultur elkarteek edo gizarte entitateek proposatuta. Bertze zazpi kide izendatu ditu euskal kulturaren arloan izen ona dutenen artetik: Mikel Belasko, Patxi Salaberri, Asier Barandiaran, Josu Reparaz, Mikel Olazaran eta **Iñaki Perurena** eta **Patziku Perurena** leitzarrak.










SUNBILLA

# Antzerki emanaldia izanen da maiatzaren 11n Udaberriko Biraren barne

Kuko, Truko eta Bolenwaider taldeak *Munduan zehar* ikuskizuna eskainiko du

Jaione OTXANDORENA

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak antolatzen duen Udaberriko Biraren barne, antzerki emanaldia izanen da frontoian maiatzaren 11n, 17:00etatik aitzinera. Antzerkia eskainiko duen taldea Kuko, Truko eta Bolenwaider izanen da eta lanaren izenburua, berriz, *Munduan zehar*.

## *Udal igerilekuak hartzeko epea zabalik*

Udalak egindako azken batzarrean, udal igerilekuak hartzeko epea zabaltzeko baimena eman zen. Hala, lehiaketa bidez igerilekuen mantenimendu eta garbiketa lanak adjudikatzeko deialdia zabaldu zuen. Interesa duenak Udaletxera joan beharko du, bertan emanen baitiote igerilekuak hartzeko beharrezkoak diren baldintzen berri, baita gainontzeko informazio guztia ere. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 15a arte egonen da zabalik.

Aurreko urteetan bezala, igerilekuko denboraldia ekainaren 15etik irailaren 15a bitarte luzatuko da. Aurtengo igerilekuko sarreren eta bonoen prezioen berri aurrerago emanen dugu.

## *Mus tximista*

Gogoratu ortziral honetan emanen zaiola hasiera Ulibeltzak elkarteak antolatutako mus txapelketari. Hilabete guztietako lehen ortzirelean izanen da, elkarteak herrian duen egoitzan, 22:00etan.

## *Okindegi berria herrian*

Oreberri izeneko okindegi berria zabaldu dute herrian. Joan den apirilaren 23an hasi ziren ofizialki ogia egiten eta banatzen. Herriko dendetan erosteko aukera izanen da, eta nahi izanez gero ogia eta opilgintzako bertze produktuak etxera eramateko zerbitzua ere jarri dute. Eskariak egin edo informazioa nahi duenak 690 961616ra deitu dezake.

## *Asteburu kulturaleko zozketa*

Asteburu kulturalean zozketatutako urdaiazpikoaren sariduna ateratzen ez zela ikusita, Antzakaitz kultur taldeak berriro ere zozketa egin du. 694 da zenbaki berria eta maiatzaren 20an akituko da epea. Bertzela, hutsean gelditutko da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### *Istripua berriz ere herri sarrerako bidegurutzean*

**Apirilaren 17an istripu latza izan genuen berriz ere herrira sartzeko erabiltzen dugun bidegurutzean. La Baztanesako autobusa N-121A zeharkatzen hasi zen Sunbillara sartzeko eta Iruña aldera zihoan kamioi batek autobusaren aurrekaldearen kontra jo zuen. Istripuaren ondorioz, kamioaren gidaria eta autobusean zihoazen beste bi pertsona larri eraman zituzten Iruñeko eta Irungo erietxeetara eta beste zortzi lagunek ere zauriak izan zituzten, tartean lau hilabeteko haur batek. Istripu honen aurretik beste asko izan dira sarbide honetan eta batzuk hagitz larriak gainera, hildakoak tartean. Badirudi Nafarroako Gobernua eta Udala harremanetan jarri direla behingoz arazo larri honi irtenbidea emateko.**







ITUREN

# Aurtizko Ostatuak laster zabalduko ditu ateak berriz ere

## Juana Mª Elizalde arduratuko da hurrengo bortz urteetan

Arkaitz MINDEGIA

Herrian hutsune handia nabaria zen azken hilabeteetan baina azkenean berriz ere Aurtizko ostatua irekiko da. Juana Mª Elizalde Ardanazek hartu du eta errentaren iraupena bortz urtekoa izanen da. Zorte on!

### *Jaunartzeak*

Maiatzaren 11n jaunartzea eginen dute herriko gaztetxoek. Aurtengoan zortzi herritarrek eginen dute. Hodei Aioroa, Ane Baztерrika, Iratxe Fagoaga, Wilian Andres Giraldo, Andoni Mindegia, Olaia Altzuri Antxon Etxebestze eta Urtzi Etxebestek.

### *Dirulaguntza*

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bideratuko du aurten Nafarroako udaletara eta horien artean Iturenek ere jaso du.

Laguntza biztanleriaren arabera izanen da, herrien finantzazio bideak hobetzeko helburuarekin. Iturengo kasuan 477 biztanle dira (2007ko Estatistikako Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta) eta 10.909,97 euroko dirulaguntza jasoko da.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

### *Apiril kulturala arrakastatsua*

**Ibintza Kultur Elkarteak apirileko asteburu ezberdinetan adin guztientzako ekitaldi bikainak antolatu zituen. Denetan ere parte-hartze handia nabaritu zen. Argazki erakusketan herriko irudi ikusgarriak ikusi ahal izan ziren Jagoba Manterolaren eskutik eta ondotik herriko ostatuan antolatutako bertso afarira 57 lagun bildu ziren. Xabier Amuriza, Aitzol Barandiaran eta Jon Barberenak goizeko 4ak arte bertso politak bota zituzten, tartean Miriam eta Arkaitz trikitilariekin tartekatuz. Onutxik taldearen kantaldian ere giro polita izan zen.**



## 2008ko Urrezko Aizkolarien Txapelketa

2008ko Urrezko Aizkolarien Txapelketaren kanporaketa apirilaren 19an jokatu zen Leitzako Amazabal pilotalekuan. Gazteen mailan, 18 urtez azpikoen mailan, Ander Erasun aurtiztarra Ruben Sarelegiren aurka aritu zuen.

Egin beharreko lana hau izan zen: 45 ontzako enbor bat erlojuaren kontra ebaki, 36 ontzako enborra zutika eta 54 ontzako bi etzanda. Erasunek irabazi zuen 6:40ko markarekin. Saralegik, berriz, 7:46ko denbora ezarri zuen. Garaipen horrekin finalerdietara pasa da Ander, Kañamares eta Oihan Larretxearekin batera.

| ANDER ERASUN | | |
|---|---|---|
| Enborrak | Denbora Partziala | Guztira denbora |
| 45 ontzako enborra erlojuaren aurka | 58s | 58s |
| 36 ontzako enborra zutika | 1:17 | 2:15 |
| 54 ontzako bi enbor etzanda | 4:25 | 6:40 |

| RUBEN SARALEGI | | |
|---|---|---|
| Enborra | Denbora Partziala | Guztira denbora |
| 45 ontzako enborra erlojuaren aurka | 58s | 58s |
| 36 ontzako enborra zutika | 1:05 | 2:03 |
| 54 ontzako bi enbor etzanda | 5:43 | 7:46 |



MALERREKA

# Lehen Pintxo Lehiaketa eginen da ortzegunetik igandera Donezteben

## Ameztia, Titi, Bixen, Irrintzi, Maylin eta Jubilatuen Elkarteak antolatuta

**ttipi-ttapa**

Doneztebeko ostalariek irudimen erakustaldia eginen dute duten onena eskaintzeko. Izan ere, ostatuen ekimenez, Pintxo Lehiaketa eginen da lehen aldiz maiatzaren 1etik 4ra, ortzegun honetatik igandera Donezteben.

Udalaren eta Inurrieta Bodegaren laguntzarekin antolatu duten lehiaketa honetan Doneztebeko ostatu hauek hartuko dute parte, euren pintxorik bereziena eskainiz: Ameztia, Titi, Bixen, Irrintzi, Maylin eta Jubilatuen Elkartea.

### *Luis Garderen lan berria*

2004an plazaratu zuen Luis Garde Iriartek bere lehen poemaliburua: *Oihan nabarra*, eta Euskaltzaindiaren eta BBKren Felipe Arrese Beitia saria lortu zuen. Joan den urteko uda hasieran bigarrena kaleratu zuen: *Haize hegoaren aroak*. Bigarrenean euskaldunak tartean diren gerren poemak bildu zituen, karlistadenak, 1936koak, egungo gatazkaren ingurukoak, etorkizunekoak...

Donezteben bizi den iruñearrak hirugarren poema liburua ere argitaratuko du orain: *Urtzailearen beharra*.

Apirilaren 23a Liburuaren Eguna zela eta, doneztebarren aitzinean bere liburu berria nolakoa izanen den aurkeztu zuen, Alondigako erakusketa aretoan. *Urtzailearen beharra* liburuan metapoesiaz ari da Garde, hau da, poesia berari buruzko poesiaz. Oraindik liburua argitaratu ez bada ere, uda baino lehen liburutegi eta liburudendetan izatea espero du.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

### *Malerrekako IX. ipuin eta bertsopaper lehiaketa*

**Malerrekako haur eta gaztetxoendako IX. ipuin eta bertsopaper lehiaketako sariak banatu ziren apirilaren 23an, Doneztebeko eskolan. Gaztetxoen artean euskaraz idazteko ohitura sortu edo areagotzea eta bertsolaritzarako zaletasuna bulkatzea helburu duen lehiaketa hau Malerrekako Euskara Mankomunitatearen ekimena da. Ipuin lehiaketan, 8 eta 10 urteko ikasleek aurkeztutako 34 lanen artean, lehenbiziko saria Lorena Juanenaren *Jirafa txikia* ipuinarentzat izan zen eta bigarren saria, Alazne Erasunen *Kale katua* lanarentzat. 10 eta 12 urte artekoei zuzendutako ipuin lehiaketan 21 idazlan aurkeztu ziren eta horien artean, Jon Aldaberen *Txokolatezko zelaia* ipuinak eskuratu zuen lehen saria eta Uxoa Mutuberriaren *Lagun gaiztoak* ipuinak bigarrena. Bertsopaper lehiaketan 10 eta 12 urte arteko ikasleek bakarrik parte hartu zuten eta guzira 41 aurkeztu ziren. Ipuinetan bezala, bertsopaperetan ere Jon Aldabek eskuratu du lehen saria, *Eskolako klaseak* gaiarekin egindako bertso-sortarekin. Bigarren saria, Olatz Baleztenak eskuratu zuen, *Udaberriaren etorrera* lanarekin. Argazkian lehiaketako sarituak ageri dira.**
















## KULTURA

# Antzerkia, zinea, dantza eta musika emanaldiak eskualdeko bederatzi herritan Udaberriko Biraren barne

Ekainaren 15a bitarte zer ikusi izanen da

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak antolatuta, apirilaren 26an ailegatu zen gure ingurura Udaberriko Bira. Ekimen honen bitartez, aurten ere 200 eta 1.000 biztanle arteko herrietan hainbat saio izanen dira. **Beintza-Labaien**en film batekin hasi zuen eskualdeko itzulia Udaberriko Birak. Maiatzaren 10ean **Donamaria**ren txanda izanen da. Kuko, Truko eta Bolenwaider taldeak *Taulara* izeneko antzezlana eskainiko du 19:00etan. Biharamunean, **Sunbilla**n, talde berak *Munduan zehar* ikuskizuna eskainiko du 17:00etan.

Malerrekatik **Zugarramurdi**ra eginen du salto Birak, maiatzaren 17an. Kuko, Truko eta Bolenwaider taldeak *Munduan zehar* ikuskizuna eskainiko du 17:00etan. Bortzirietara ailegatuko da egun berean. **Arantza**n, Keltiar Aldea folk taldeak kontzertua eskainiko du 20:00etan. Egun berean, **Igantzi**n, Rocamador taldearen dantza saioa izanen da 20:30ean. **Goizueta**ren txanda maiatzaren 24an izanen da. Oberena dantza taldeak emanaldia eskainiko du 20:00etan. Ekainaren 13an **Legasa**k hartuko du lekukoa, eta *Mozart txakurra* filma ikusgai izanen da, 22:00etan. Eskualdeko itzulia **Etxalar**ren akituko da, ekainaren 15ean. Kuko, Truko eta Bolenwaiderrek *Taulara* eskainiko dute, 15:30ean.



LEITZA

# Euskal Kantarien III. Topaketa maiatzaren 17an eta 18an herrian

## Anje Duhalde, Benito Lertxundi eta Gorka Urbizuk parte hartuko dute

Joseba URKIOLA

*Nondik gatoz eta nora goaz* lemapean Euskal Kantarien III. Topaketa Leitzan eginen da maiatzaren 17an eta 18an. Egitarau zabala prestatu du Euskal Kantuzaleen Elkarteak.

**Maiatzak 17, larunbata**

- 10:30ean Zinean, Anje Duhalderekin *Euskal kantagintzaren historia*, hitzez eta kantuz.
- 12:00etan *Topaketa*.
- 14:00etan *Bazkaria*.
- 16:30ean Atakabeltzen, *kantuak prestatzeko tartea*.
- 18:00etan *perkusio ikastaroa*, Oskar Estangarekin.
- 20:00etan *kantu-jira*.
- 21:30ean *afaria*.

**Maiatzak 18, igandea**

- 10:30ean *kantuak prestatzeko tartea*.
- 12:30ean zinean, *Euskal kantuaren lehena, oraina eta geroa*ri buruz mahai-ingurua. Benito Lertxundi eta Gorka Urbizurekin.
- 14:30ean *Bazkaria*.
- 16:00etan *kantuak prestatzeko tartea*.
- 18:00etan Zinean, partehartzaileen *emanaldia* eta *agurra*.

### Plazako pilota txapelketa

Zabalik da XVI. Eskuz Binakako Plazako Pilota Txapelketan parte hartzeko epea. Maiatza erdialdean hasiko da eta parte hartu nahi izanez gero, Plaza Auto-Eskolan edota 635 714237 telefono zenbakian eman beharko da izena. Epea maiatzaren 3ko arratsaldeko 8ak arte dago irekia. Baldintza bakarrak 15 urte baino gehiago edukitzea eta bikoteko 15 euro ordaintzea dira.

### Nieve bikain

Mikel Nieve Orbea taldeko txirrindulariak hasiera ezin hobea izan du profesional mailako lehen denboraldian. 23 urteko leitzarrak Valentziako Itzulia eta Gaztela-Leongo Itzulietan ondo ibili ostean, lanik nabarmenenak Frantziako Loir et Chairko Itzuliko etapa batean lortutako 7. postua, Zornotzako Udaberri Sariko 12. postua eta Miguel Induraineen omenez egin ohi den sariketan lortutako 14. postua izan dira.



ARGAZKIA: NAIARA GARTZIA

### Abdelfettah Lovasadirentzat 30.edizioa

**Apirilaren 20an jokatu zen Leitzako Herri Krosaren 30. edizioa. Eguraldia nahikoa lagun izan arren, Euskal Herri zabalean izandako bestelako kirol ekitaldiak tarteko, pasa den edizioan baino parte hartzaile gutxiago gerturatu ziren. Halere, karriketan egon zirenek ederki gozatu zuten. Aurtengo garailea, 32:22ko denborarekin, Abdelfettah Lovasadi izan zen. Bere atzetik Boulame Jaquad eta Raul Amatriain sailkatu ziren. Senior mailako lehen herritarra 35:59ra helmugaratu zen, Fernando Irazoki, hain zuzen. Damei dagokienez, Aich Banik lortu zuen garaipena. Marta Muñoz eta Maika Ariztegik bigarren eta hirugarren postuak lortu zituzten. Lehen herritarra Garbiñe Hernandorena izan zen. Aipatu, aurtengoan ere parte hartzaileek ezin izan dutela Andres Perezek orain urte batzuk ezarritako 29:49ko marka hobetu.**

FLASH

### Natur Bideen Eguna igandean

Udalak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta, Natur Bideen Eguna eginen da igande honetan, maiatzak 4. Plazaolako natur bidea ezagutzeko ibilbide ezberdinak proposatu dituzte, luzeera eta irteera diferentekoak. 10 eta 14 kilometroko ibilbideak izanen dira aukeran, eta 9:30etik 10:30era bitartean abiatuko dira Leitzako Plazaola Geltokitik. Horrez gain, pailazoak, kontzertuak, ikus-entzunezkoak eta luntxa izanen dira 12:00etatik aurrera.




Hauxe izan da pasa berri den Herri Kroseko elastikoetan egon den irudia. 30. urteurrena zela eta, Aurrera Kirol Elkarteak antolatutako logo lehiaketa Aitor Zabaletak irabazi zuen. Orotara zazpi irudi desberdin aurkeztu ziren deialdira eta garaipena batek lortu zuen arren, lasterketen egunean denen irudiak egon ziren Karrapen ikusgai.

Iñaki Alzuiet margoak
Tlfnoa: 659 862 417

BEINTZAKO OSTATUA
✆ 948 45 00 14
ORBELA

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491


GOIZUETA

# Asteburu honetan ospatuko da Txino auzoko festa

## Era guztietako ekitaldiak izanen dira, tartean Sombras de Acero talde espainiarraren kontzertua

**Esteban AROTZENA**

Mus txapelketa, herri kirolak, herri bazkaria, berbena, kontzertuak… Denetarik du egitarauan asteburu honetan ospatuko den Txino auzoko festaren bosgarren edizioak. Hilaren 3ko jai haundi honi rock talde atzerritar batek emanen dio sofistikazio puntua, Espainiako Soria probintziatik heldu den Sombras de Acerok, hain zuzen.

Antzerki emanaldiak eta Zubiondo tabernako mus txapelketak osatzen dute ostiraleko egitaraua. Larunbatean, berriz, 12:00etan botako den txupinazoak lehertuko du festa. Ondoren, trikitilari eta buruhaundien konpartsaren kalejira hasiko da, eta hauek bukatu ordukoKoruak kantatuko du. Goizueta-Hernani gazteen arteko herri kiroletako desafioak hartuko die txanda kantariei.

Gure herriko festa haundi guziei bezala, bazkari herrikoiak emanen dio indarra Txinoko honi ere. Lerro hauek argia ikusten dutenean txartelaren bat egonen da akaso salgai Amaiarenean. Laiotzen berbenak eta Txino-Naked taldearen Break Dance emanaldiak osatuko dituzte arratsaldea eta ilunabarra. Afalondoa musika gogorragoarentzat erreserbatu dute antolatzaileek. Rock kontzertua iragarri da arratseko 12etarako goian aipatutako Sombras de Acero eta herriko Deus taldeekin.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

### *Suhiltzaile parke haundituaren inaugurazioa*

**Miel Joxe Lekuona alkatea, Javier Caballero Nafarroako Gobernuko Barne kontseilaria, David Sainz Nafarroako Larrialdietako Agentziako zuzendaria, inguruko hainbat herritako suhiltzaile buru eta aktuko protagonista nagusiak, hau da, herriko 26 suhiltzaile bolondresak, elkartu ziren apirilaren 16an parke berriaren inaugurazioan. Bolondresak banan-bana agurtu eta egindako lana eskertu ondoren, instalazioak eta ibilgailuak ikusi zituzten bisitariek. Ondoren, merienda eman zien Udalak elkartutakoei suhiltzaileen parkean bertan. 308.000 euroko kostua izan dute bi fasetan burutu eta inauguratu berri diren instalazioek. Guztia Iruñak ordaindu du. Lur-zorua, berriz, herriarena zen. Dirutza honez gain, beste 40.000 eurorekin subentzionatu du Nafarroako Gobernuak erosi berria den kamioi zisterna.**

### *Umore Onako berriak*

Ostegun honetan, maiatzak 1, Zarauzko Santa Barba txakonlindegira eginen den irteerak emanen dio bukaera aurtengo udaberrirako Umore Onak antolatu duen *Kultur Bidai*en zikloari. Aurreko bi ostiraletan Etxeberria eta Olaizola sagardotegietara joan dira Umore Onakoak. Esan behar da, baita ere, hurrengo astean, hilaren 5etik 9ra, itxita egonen dela elkartea pintaketa lanak direla medio.



ARESO

# Otarreko baserri eta etxeak Elusederreko ur depositutik hornitzea eskatu du Udalak

Ura mendiko iturritik hartu beharrean depositutik hartu nahi da

Juana Mari SAIZAR

2008. urteari begira, eskaera berriak prestatu ditu Udalak Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Departamentuari egiteko. Horien barnean bat garrantzitsua eta azpimarratzekoa da. Eluseder industrialdean ur depositua jarri dute eta bertatik ura harzea eskatu nahi da Otarre parajerako. Izan ere, bertako baserri eta etxeek euren aldetik hartu izan dute ura mendiko iturritik eta neurri horren bitartez, bide hori alde batera utzi eta ura depositutik hartu nahi da.

## *Erregistro zibila on-line*

Beste hainbat herrietako udalekin batera, Aresokoak ere erregistro zibilak informatizatzeko akordioa sinatu du Nafarroako Gobernuarekin. Horrela, informatikari esker, eskuz egin beharrean, erregistro zibileko edozein motatako agiriak edozein tokitatik lortu ahal izanen dira, mugitu gabe. Apirilaren 9an sinatu zuen Udalak hitzarmena Arano, Goizueta eta Leitzako udalekin batera, Irurtzunen egindako ekitaldian.



UTZITAKO ARGAZKIA

***Zuriñe Goikoetxea txukun pianoarekin***

**Satur Eleta Aralar Musika Eskolak antolatutako txapelketan, 13-15 urteko kategorian, Zuriñe Goikoetxea aresoarrak pianoarekin lehen postua lortu zuen apirilaren 12an, *Para Elisa* Bethovenen abestiarekin. Bigarren postua hutsik geratu zen eta bi hirugarren postu izan ziren.**




ZURI ESKERRAK,
ESKERRIK ASKO HELBURU BERRIAK ETA BIZITZEKO LEKU HOBEA LORTZEN LAGUNTZEAGATIK
2007ko ERRENTAREN ETA
ONDAREAREN AITORPENA
APIRILAREN 18tik EKAINAREN 20ra
Nafarroako
Gobernua

## BAZTAN

# Lekarozko Kolegioaren inguruan Gobernuak dituen asmoen berririk ez duela dio Udalak

### Diseinu eskola bat egitea proposatuko du Udalak

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak 12 milioi euroko gastua onartu du berriki Lekarozko Kolegioari begira. 2012 Nafarroako Planaren barne hitzartu dute UPN, CDN eta PSNk aipatu inbertsioa. 2006an erosi zuen Gobernuak Lekarozoko Kolegioa, 3,3 milioi euroren truke, eta geroztik haren esku dago.

Gobernuak egin asmo dituen proiektuen inguruan mintzatu zen Virginia Aleman alkatea apirilaren 16an Herriko Etxean emandako prentsaurrekoan, Santiago Aldako eta Martin Garde zinegotziak alboan zituela. Lekarozko Kolegioaren inguruan, Gobernuak hezkuntzaren alorrera bideratuko duela jakin arren, hortik haratago egin nahi dituen proiektuen inguruan *«inongo berririk»* ez zutela adierazi zuen alkateak, eta horren berri hedabideen bitartez jaso dutela. Udalak, bere aldetik, Irungo diseinu eskola batekin harremanetan jarri eta diseinu eskola bat egiteko proposamena Gobernuari luzatuko ziola adierazi zuen.

2005ean Kolegioa salgai paratu zenean, Udalak Baztango ekonomia sustatu eta herritarren beharrei aitzin egiteko proiektuak sustatzearen alde egin zuela adierazi zuen Alemanek. Hala, bertzeak bertze, teknologia zentroa, nekazaritzako elikagaiak bultzatu eta kudeatzeko gunea, kultur eta aisialdi ekimenak eta arte eskola egitea bezalako proposamenak planteatu omen zituzten enpresari eta agente ekonomikoekin hitz egin ondotik.

#### BIDEAK ASFALTATZEN

Egun berean, Aldako zinegotziak baserrietarako bideak asfaltzeko inbertsioez hitz egin zuen. Udalak dagoeneko 298.788 euro gastatu ditu baserrietarako bideak konpontzen, eta gainerako 95.287 euroak bertze lanak egiteko baliatuko dira. Gastu guztia Udalak bere gain hartu duela adierazi zuen Aldakok, Nafarroako Gobernuak iaz ez zuelako nekazaritza azpiegituretara bideratutako laguntza deialdirik egin.

Egin gabe dauden lanen artean, Elizondon osasun zentroaren ondoan aparkaleku gehiago egiteko asmoa dago. Arizkungo Ordoki industrialdean ere kamioientzat aparkalekuak eginen dira. Horrez gain, Arizkun, Oronoz-Mugairi eta Almandozen saneamendu eta zolatzeko lanak eginen dira. Lekarozko ur arazoekin akitzeko neurriak hartuko dira.

Egin diren lanen artean, berriz, Arizkun, Erratzu, Irurita, Elizondo eta Lekarozko hainbat bideren obrak daude.

#### ESKOLETAN LANAK

Eskoletako matrikulazioa gora doalako eta konponketa lanak beharrezkoak direlako, Udalak Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, zenbait ikastetxetan konponketak eginen ditu udan. Asmo horien berri Martin Garde zinegotziak eman zuen. Hala, Amaiurko eskolan jangela haunditanuko da; Azpilkuetan ikasgela berria eta psikomotrizitate gela eginen dira; Erratzun ikasgela berria eraikiko da; eta Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean komunak, leihoak eta psikomotrizitate gela konpondu.

Gainerakoan, Almandozen (eraikitzen ari dira 2008/09 ikasturtean irekitzeko), Iruritan eta Oronoz-Mugairin, ikastetxe berrien beharra dago, Iruritan batez ere. Izan ere, ikasturte honetan, eskolatik kanpo gela bat antolatu behar izan da espazio faltagatik. Etorkizunean gabezia horiek areagotuz joanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Ipuin kontalariaren aginduetara*

**Nazioarteko Haur Literaturaren eguna zela eta, Udalak antolatuta, Pello Añorgaren ipuinekin gozatzeko aukera izan zuten Baztango ikasleek. Apirilaren 4an Iruritako Gizarte Bilgunean, Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Arizkun, Gartzain, Irurita, Arraioz, Oronoz-Mugairi, Almandoz eta Zigako eskoletako ikasleen txanda izan zen. Baztan Ikastolan eta Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean, berriz, apirilaren 7an eta 8an, izan zuten Añorgaren bisita. Argazkia Baztan Ikastolan ateratakoa da.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Musika eskolakoen saioak*

**Apirilaren 7an, 8an eta 9an musika eskolako egoitzan ikasleek kontzertua eskaini zuten. Era guztietako musika tresna eta ahotsak entzun ziren. Hurrengo ekitaldiak maiatzaren 19an eta 20an Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean eta Baztan ikastolan izanen dira eta ekainean Francisco J. Iriarte zahar etxean izanen dira. Herrietako eskoletan emanen diren kontzertuak finkatzeke daude oraindik.**







BAZTAN

# Berroetako Mendekoste bestak maiatzaren 9tik 12ra

## Ohi bezala, asto lasterketa eta herri kirolak izanen dira protagonista

ttipi-ttapa

Berroetako Mendekoste bestak maiatzaren 9an, 10ean, 11n eta 12an izanen dira. Urteroko ekitaldiei hutsik egin gabe, denetarik izanen da aurten ere.

**Maiatzak 9, ortzileria**

20:00etan su ziriak bestei hasiera emateko. Herriko trikitilariak herrian barna.

20:30ean txopo goratzea.

21:00etan Mutildantzak.

21:30ean Baztan-zopak JOXE ANGELekin.

23:00etan dantzaldia JOXE ANGELekin.

**Maiatzak 10, launbeta**

10:30ean diana.

10:30ean mukuen tailerra.

15:00etan haurrendako *quads* eta puzgarriak.

19:00etan asto karrera.

21:00etan herri afaria.

00:00etan dantzaldia SANTXOTENArekin.

**Maiatzak 11, igendia**

12:00etan Meza Nagusia, Elizondoko abesbatza eta Amaiurko Gaztelua taldearekin.

13:00etan hamaiketakoa.

13:30ean binakako pilota partida.

14:30ean Xegonen apostua.

18:00etan herri kirolak.

19:00etan asto karrera.

19:30ean dantzaldia JOXE ANGELekin.

**Maiatzak 12, astelehena**

10:30ean diana.

11:00etan bizikleta itzulia.

12:00etan mus txapelketa.

14:30ean zikiro jatea JOXE ANGELekin.

18:00etan sokatira.

19:00etan futbol partida.

21:00etan xinger jatia.

22:00etan *Gaixo Ni.*



ARTXIBOA

**Aurten ere ez da herri-kirolik faltako Berroetako bestetan.**



ARGAZKIA: ONDIKOL

### *Preferente mailan futboleko talde nagusia*

**Joan den urtean puntu batengatik igoera fasetik kanpo gelditu bazen ere, aurten ametsa betetzea lortu du: Preferente mailara igotzea. Apirilaren 20an Mutilvera taldearen kontra 3 eta 1 irabazitako partidarekin ziurtatu zuten Baztan Futbol taldeko nagusienek Preferenteen mailan ariko direla hurrengo denboraldian.**

### *Erratzuko kontsulta berria*

Apirilaren 22an inauguratu zuten Erratzuko mediku kontsulta berria. Ekitaldian, bertzeak bertze, Maria Kutz Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilaria izan zen. 90,90 metro koadroko egoitza da, eta medikuaren gela, erizainarena, itxaron gela eta komunak ditu. 396 biztanleak artatzeko mediku eta erizain bana ariko dira lanean. Egoitza egiteko Udalak Osasunbidearen laguntza izan du: 42.185 euro obretarako, eta 18.628,22 euro hornikuntza eta altzariak paratzeko.

### *Xorroxin on-line*

Teknologia berrietara egokitzeko bidean, Interneterako pauso garrantzitsua eman du berriki Xorroxin irratiak. Dagoeneko sarean zuzenean entzun daiteke Xorroxin irratia, *www.xorroxin.com* web orrialdean.

### *Baztandarren Biltzarraren kartela*

Apirilaren 11n bildu zen Elizondon aurtengo Baztandarren Biltzarra iragartzeko Kartel Lehiaketaren epaimahaia. Aitzitik, ez zuten kartelik hautatu. Edizio berezia izan da hau, lehendabizikoz, kartelik ez aukeratzea erabaki baitu epaimahaiak. Hortaz, elkartearen azken logotipoaren moldaketa egin duen Juan Angel Perotxenak egin du kartela.






URDAZUBI/ZUGARRAMURDI

# Akelarrea eskaini du herriko antzerki taldeak Huescan

Apirilaren 19an eta 20an Boltaña herriko Sorginen Gauan parte hartu zuten

**ttipi-ttapa**

Duela hilabete pare bat Madrilgo Fitur turismo azokan egon ondotik, orain bertze emanaldi bat eskaini du herriko antzerki taldeak: aldi honetan Huescako lurretara gan dira, Boltaña herrira.

Herri horretan Espiello izeneko etnografia dokumentalen erakusketa bat egiten da, eta aurtengo gaia sorginkeria zutenez, larunbat gauerdian Sorginen Gaua antolatua zuten. Horretan parte hartu zuen antzerki taldeak beren Akelarre antzezlana aurkeztuz.

Antzerkiaz gain, Sorginen Museoan ikus daitezkeen hiru dokumentalak ere emititu ziren erakusketa horretan.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

**Apirilaren 19an eta 20an 14 lagun Boltañara gan ziren Akelarre eskaintzeko. Bide batez, turismoa egiteko aukera izan zuten**

### Sendotza 10 lagunek

Urdazubi eta Zugarramurdin bi urtetik behin egiten da sendotza eta joan den urtean egin ez zenez, aurten egitekoa zen. Hala, apirilaren 13an hamar gaztetxo elkartu ziren Urdazubiko elizan Apezpikuraren eskutik Sendotzako Sakramendua hartzeko.

Arras elizkizun ederra eta hunkigarria izan zen, partehartzaileek protagonismo haundia izan zutelako, Azpezpikuak hurbiltasuna erakutsi zuelako eta bortz herrien artean osatua den abesbatzak kantu politak eskaini zituelako ere bai.

Elizkizunaz aparte, bertze gisako ospakizunak ere izan ziren: sendotzaren ondotik klaustroan merienda eskaini zen, eta gainera bezperan afari bat egina zuten Azketan hamar gazteek Imanol apaizarekin.

### Maria Arnoz laugarren Sarako zaldi lasterketan

Sailkapen ona eskuratu zuen Maria Arnoz Gamio urdazubiarrak taldekako Sarako zaldi lasterketan; laugarren gelditu zen.

## FLASH

### Urdazubiko Udala kondenatua 2006ko plenoan hartutako erabaki batengatik

Urdazubiko Udalak ohar bidez **ttipi-ttapa**ri jakinarazi dionez, Nafarroako Auzitegi Kontentzioso- Administratiboak 2006an alkate zen Andres Diharasarry zigortu du Justo Arretxeak egindako salaketa bat tarteko. Zigor horren bidez, duela bi urteko urtarrilaren 20ko plenoan Dantxarineari buruz azterketa zehatza egitea onartu zuen erabakia baliogabetua gelditu da, *«ordenamendu juridikoaren kontrakoa»* dela leporatuta.

### Antzerkia Udaberriko Birarekin

Nafarroako Kultura eta Turismo Departamentuaren eskutik, antzerki emanaldia ikusteko aukera izanen da Zugarramurdin heldu den maiatzaren 17an Kuko, Truko eta Bolenwaider taldearen eskutik. *Munduan zehar* ikuskizuna eskainiko du taldeak Sorginen Museoan, 17:00etan hasita.









SARA

# Mariluzek eta Saskok irabazi dute joko berri txapelketa

## Etsaiak, Ene Beltza, DJ Moule eta On Benito Herri Urrats bezperan

**Xan HARRIAGUE**

Christophe Mariluz eta Txomin Sasko izan dira aurtengo joko berri txapelketan onenak. Finalean tanto batengatik nagusitu ziren Diturbide eta Daxarriren aurka, 40 eta 39. Finala orekatua izan zen bigarren mailan ere. Berro eta Usette, Eskurra eta Usetten kontra aritu ziren, baina partida luze baten ondotik, garaipena Berro eta Usetterentzat izan zen (40-36). Hirugarren mailako onenak Beñat Urkia eta Jean Francois Iribarren izan ziren 40 eta 35 menean hartu baitzituzten Aspirot eta Idiart. Jean Francois Iribarren Stephane Barneixen ordez aritu zen egun batzuk lehenago belaunean min hartu baitzuen. Laugarren mailan garaipena bertze Mariluztar batentzat izan zen. Pantxo Errandonearekin Frederic eta biak nagusitu ziren Mattin Iratzoki eta Larronden aurka. Daniel Mariluz Sarako Izarra pilota elkarteko presidenteak banatu zituen sariak.

### Gau pasa

Urteak dira Etsaiak taldeak azkenekoz herrian jo zuenetik. Zortzigarren diskoa karrikaratu berritan, Gaztetxeak ez du huts egin Lekeitioko taldea gomitatzeko. Haiekin batera ariko dira garaikideak diren bertze hiru talde. On Benito Beratik etorriko da arratsaldetik goiti ostatu baztерrak animatzeko. Etzakit taldeko Xabi Solanoren Esne Beltzak kontzertua irekiko du 22:00etan. Duela gutti sortu bazen ere, eskarmentu handiko taldea da, eta bertan aritzen dira Sagarroi, Selektah Kolektiboa, Fermin Muguruza eta Joxe Ripiaurekin lan egin duten hainbat lagun. Etsaiaken ondotik, Frantziatik datorren DJ Moule diskojartzaileak animatuko du gaua. Arratsaldean Xiba txapelketako Lapurdiko kanporaketa jokatuko da plazan.




ARGAZKIA: JEAN PIERRE LEMOINE

**Lehen mailan, eskuinean diren Mariluz eta Saskok irabazi zuten.**




ARGAZKIA: JEAN PIERRE LEMOINE

**Eskuinean diren Urkia eta Iribarren gailendu ziren hirugarren mailan.**




ARGAZKIA: JEAN PIERRE LEMOINE

**Laugarren mailan, garaipena ezkerrean diren Errandonea eta Mariluzentzat izan zen.**







## SENPERE

# Hogeita bortzgarren Herri Urrats besta maiatzaren 11n eginen da aintziran

Zeina taldeak alaituko ditu aintzirako bigarren bestak maiatzaren 31n

**Franck DOLOSOR**

Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko bestak mende laurdena ospatuko du maiatzaren bigarren igandean. Aurtengo irabaziekin, ikastola berria eraikiko dute Erberua eskualdean, Nafarroa Beherean, eta Baionan Polo ikastola berrituko dute.

Aitor Sarasua bertsolariak asmatu du *Mende laurdena, bide erdia* leloa eta ikurrean bare kurkuilu bat ikusten da, arrastoan 25 zenbakia ageri dela. Abere hau poliki baina segurki doa aitzinera, eta egin duen bidea ez da makala, Ipar Euskal Herriko ikastolak ederki haunditu baitira. Gaurko egunean, 2 eta 18 urte arteko 2 500 gaztek ikasten dute Iparralde osoan dauden 25 ikastoletan. Mende laurdenean, ikastolen egoera ainitz hobetu da. 1994tik Frantziako hezkunde nazionalak ordaintzen ditu irakasleak, eta Euskal Herri osoko euskaltzaleek eta Eusko Jaurlaritzak laguntza handia eman dute ikasgelak hobetzeko.

Aurtengo Herri Urrats berritasunez beterik dator, bereziki haurren xokoa hobetuko baitute. Gainerakoan, Maialen Errotabehere, Txan magoa, Betagarri eta Celtas Cortos taldeak ikusi eta entzun ahal izanen dira.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

***Berho senar-emazteak 50 urte elkarrekin***

**Berho jaun-andereak Urrezko Ezteiak ospatu dituzte berriki eta hautetsiek zorionak desiratu dizkiete.**

### MAIATZEKO BIGARREN FESTA

Aintzirako bigarren besta maiatzaren azken larunbatean eginen da aurten. Pittika errea jateaz gain, haurrentzat jokoak izanen dira eguraldi ona egiten badu bederen. Egun osoan, Zeina folk taldearen doinuek alaituko dituzte aintziraren bazterrak. Auzoan bizi direnen topalekua da besta hau, baina ateak senpertar guzientzat ere irekiak dira. 200 toki bertzerik ez daudenez, parte hartu nahi baduzue izenak eman beharko dituzue lehenbailehen.

I CHE
S.L.



# EZKONTZAK

**Iñaki Arretxe Berraondo** eta **Arantxa Telleria Olazabal**, Irungoak, martxoaren 29an, Lesakan.
**Santiago Susperregi Goñi** eta **Mª Concepcion Mutuberria Bergara**, Berakoa eta Lesakakoa, apirilaren 18an Lesakan.
**Imanol Erkizia Iratzoki** eta **Sara Ordoki Iratzoki**, Berakoak, apirilaren 12an Beran.
**Juan Jose Santxotena Irigoien** eta **Itxaso Etxeberria Otxandorena**, Iruritakoa eta Elizondokoa, apirilaren 5ean, Lekarozen.
**Xabier Lontxo Urrotz Agirre** eta **Miren Zudaire Ajona**, Berakoa eta Lesakakoa, martxoaren 29an Elizondon.
**Basilio Juanotena Aranbillet** eta **Mª Isabel Iraizotz Iñarrea**, Narbartekoa eta Elizondokoa, apirilaren 12an Elizondon.
**Rafael Altzate Sarratea** eta **Amaia Cordoba Arrosamena**, Berakoa eta Erratzukoa, apirilaren 17an Elizondon.
**Fco Javier Villanueva Telleria** eta **Chiara Sabrina Manzato**, Zozaiakoak, apirilaren 18an Elizondon.



# SORTZEAK

**Katixa Madariaga Apezetxea**, Lesakakoa, apirilaren 10ean.
**Aimar Azpirotz Erbiti**, Leitzakoa, apirilaren 4an.
**Uxue Zabala Zumarraga**, Leitzakoa, apirilaren 6an.
**Ekai Etxeberria Casteig**, Berakoa, apirilaren 17an.
**Ane Iparragirre Igoa**, Berakoa, apirilaren 16an.
**Axuri Zapiain Arlegi**, Berakoa, apirilaren 14an.
**Jon Pruaño Goñi**, Elizondokoa, apirilaren 6an.
**Maddi Zamora Zelaieta**, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 8an.
**Uxue Ballarena Garde**, Elizondokoa, apirilaren 10ean.
**Laia Hernaiz Eraso**, Elizondokoa, martxoaren 20an.
**Beñat Azpirotz Errandonea**, Arantzakoa, apirilaren 16an.
**Elaia Ariztegi Suhaz**, Urdazubikoa, martxoaren 21ean.
**Sara Quiquere Tchernensky**, Sarakoa, apirilaren 10ean.
**Lorena Larronde**, Sarakoa, apirilaren 12an.
**Valentin Stosik Martens**, Sarakoa, apirilaren 19an.



# HERIOTZAK

**Nicolasa Almandoz Telletxea**, Arantzakoa, apirilaren 10ean, 84 urte.
**Eugenia Lasaga Zaldiarena**, Igantzikoa, apirilaren 17an, 95 urte.
**Mª Cruz Ezurmendia Uhaldea**, Erratzukoa, apirilaren 10ean, 85 urte.
**Mª Luisa Legasa Otxoteko**, Lesakakoa, apirilaren 15ean, 64 urte.
**Jose Juan Pikabea Iratzoki**, Etxalarkoa, apirilaren 19an, 89 urte.
**Juan Arribillaga Zelaieta**, Berakoa, apirilaren 19an, 89 urte.
**Eugenia Altzugarai Ordoki**, Lesakakoa, apirilaren 20an, 90 urte.
**Jose Bergara Almandoz**, Arantzakoa, apirilaren 24an, 82 urte.



## Frantxiska
## ITURRIA ALZURI

**2007/04/16**
**I. URTEURRENA**

*Iepa amatxi, zer moduz zaude*
*gu gabe urte guzian,*
*zuk ere pena hartuko zenun*
*gu denak hemen uztian.*
*Lasaiago gaude jakinik duzula*
*kontsuelo on bat onduan*
*bihotzetik eskuminak eman*
*atatxiri ikustian.*
*Amatxi, zu ahantzi ezinik bizi gara.*

**ZURE IGANTZIKO ETA LESAKAKO FAMILIA**






## Juan
## ARRIBILLAGA ZELAIETA

**Beran hil zen, apirilaren 19an**

*Gurekin geldituko dira betirako*
*elkarrekin pasatu ditugun*
*lagunarte atseginak.*

**ZURE FAMILIA**

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin guztiei eskerrik asko.

PILOTA

# Xanti Uterga eta Iñaki Lizasok irabazi dute II. Master Patxaran Baines txapelketa

## Aitzineko partidan lortutako aldeari esker irabazi zuten txapela




UTZITAKO ARGAZKIA

**Uterga eta Lizaso Baines torneoko txapela jantzi ondoren.**

**ttipi-ttapa**

Kostata eta azken partida galdu arren, Xanti Uterga eta Iñaki Lizasok txapel bana ekarri dute Doneztebera, II. Master Patxaran Baines txapelketa irabazita. Binakako eta buruz buruko txapelketen artekoa da torneo hau, erremonte profesionalaren urteko hirugarren interesgunea.

Joan-etorriko emaitzak kontuan hartzen dituen txapelketa honetako azken saioa apirilaren 12an jokatu zen Hernaniko Galarretan, eta doneztebarrek 36 eta 40 galdu zuten Juaristi eta Iriarte gipuzkoarren kontra. Halere, bi finaletako tanto kopuruak aintzat hartuz, Uterga eta Lizaso atera ziren txapeldun.

Joaneko partida Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu zen eta 40 eta 28 irabazi zuten doneztebarrek. Bigarren partida, ordea, hagitz bertzelakoa izan zen. Juaristi eta Iriartek joku ona erakutsi zuten eta aitzineko partidatik nafarrek zuten 12 tantoko aldeari aurre egiteko gogoz agertu ziren. Markagailuan 25 eta 33 zela, txapela hurbil izan zuten gipuzkoarrek, baina azkenean, lau tantoko aldearekin 40 eta 36 garaitu zituzten Uterga eta Lizaso.

70 minutu iraun zuen partidak eta Utergak 18 tanto egin zituen, Lizasok, berriz, 15 (horietatik 8 sakez). Juaristik 28 tanto egin zituen, eta Iriartek 9 (horietatik 4 sakez).

Txapela soinean, kontent zegoen Doneztebeko bikotea. Utergak Lehen Mailako bere lehenbiziko txapela zuen: *«partida gogorra izan arren, eta tantoen aldeak garaipena maldan goiti paratu arren, hagitz gustura nago»*. Lizasok, bere aldetik, bertze garaipen bat etxeratu du eta hau ere pozik zegoen Doneztebera bertze txapel bat ekarrita. Utergak txapelketa *«ona»* egin duela nabarmendu zuen Lizasok.

# Abian da Baztan-Errekako Laxoa Txapelketaren 29. edizioa

## Finala abuztuaren 3an jokatuko da Donezteben

**ttipi-ttapa**

Laxoa Elkarteak antolatutako 29. Baztan-Errekako Laxoa Txapelketa hasia da dagoeneko. Apirilaren 12an eta 13an hasi zen, eta iaz bezala, 12 taldek eman dute izena: Doneztebeko 4, Iruritako 3, Oitz eta Arraiozko bina eta Hondarribia.

Lehen fasean bi multzotan banatu eta multzo bakoitzeko lehen lau sailkatuek final laurdenak jokatuko dituzte ekainaren 29an, uztailaren 6an edo 13an. Irabazleek finalaurrekoak uztailaren 20an, 25ean edo 27an jokatuko dituzte eta final nagusia Donezteben jokatuko da abuztuaren 3an. Finala Arraiozen egitekoa zen, baina plazaren ondoan egiten ari diren obrak tarteko lekuz aldatu dute. Arraiozek Elizondoko plazan jokatuko ditu etxeko partidak. Hondarribiak ere ezin izanen du bere plaza historikoan jokatu, ondoko harresia berritzen ari baitira.

Bertzalde, abuztuan Iparraldeko Laxoa torneoan parte hartuko du eskualdeko talderen batek Ziburun. Horrez gain, irailetik urrira gazte eta gaztetxoen laxoa txapelketa jokatuko da Nafarroako Kirol Jolasen barne, eta azarotik aitzinera 10. paxaka txapelketa.




ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

**Txapelketaren aurkezpen ekitaldian ezkerretik hasita, Jabier Bariain Nafarroako Federazioko Kirol Zuzendaria, Patxi Olazar Kasino elkarteko presidentea, eta Laxoa Elkarteko Tiburtzio Arraztoa eta Patxiku Ganboa.**

MENDIA

# Fernando Etxegarai nagusi Berako IV. Mendi Maratoi Erdian

## Emakumezkoetan, Alizia Olazabal irundarra nagusitu zen

**ttipi-ttapa**

Fernando Etxegarai beratarra gizonezkoetan eta Alizia Olazabal emakumezkoetan izan dira Berako IV. Mendi Maratoiko irabazleak. Fernando Etxegaraik azken bi urteetako irabazle Ionut Zinka Beran ez zela aprobetxatu, eta lehen edizioan bezala, garaipena lortu zuen, 1:42:54ko denbora eginez. Bigarren sailkatu zen Juanjo Igarzabali ia 4 minutuko alde atera zion. Gizonezkoetan 373 parte hartzailek akitu zuten lasterketa eta emakumezkoetan 14k. Emakumezkoetan Alizia Olazabalek garaipena errepikatu zuen, bigarren sailkatutakoari 5 minutu kenduz, nahiz eta aurten ez zuen denbora hobetzerik izan.

**Emakume beteranoak**
1.- Arantxa Eizagirre.
2.- Ana Carcamo.
3.- Isabel Perez.

**Emakume seniorrak**
1.- Alizia Olazabal.
2.- Patricia Althape.
3.- Aitziber Ibarbia.
4.- Ainhoa Jauregi.
5.- Jaione Sasieta.

**Gizonezko beteranoak**
1.- Juan Mari Garin.
2.- Bittor Maiora.
3.- Jesus Bravo.

**Gizonezko seniorrak**
1.- Fernando Etxegarai.
2.- Juanjo Igartzabal.
3.- Jokin Lizeaga
4.- Arkaitz Zamakona.
5.- Patxi Irazoki.



Argazkia: Telletxea

**Etxegarai helmugara ailegatzen.**

Tartekako helmugako saria ere Etxegaraik jaso zuen eta zehazki 150 euro eskuratu zituen. Marka jartzen zuen lasterkariak 300 euroko saria eskura zezakeen, baina ez zen halakorik gertatu. Gizonezkoetan Ionut Zinkak ezarria du marka (1:41:27) eta emakumezkoetan Alizia Olazabalek 2:07:05ekin.

Manttale taldeko partaideek eurek ere sari berezi bat jaso zuten, Josu Goiak emandako zerrikumea, hain zuzen. Eta Manttale taldekoek, euren aldetik, esker ona agertzeko bi oroigarri banatu zituzten. Anjel Gartzia Agerra Mendi Taldeko kideak eta Txomin Iratzoki Manttaleko fisioterapeutak San Barbara mendian jarritako eskulturaren errepika bana jaso zuten.

| ESKUALDEKOAK | |
|---|---|
| **GIZONEZKOETAN** | |
| Fernando ETXEGARAI | 1 |
| Patxi IRATZOKI | 5 |
| Iñigo LASAGA | 6 |
| Alberto BARBERENA | 15 |
| Jabier OTXOTEKO | 42 |
| Alfredo TELLETXEA | 48 |
| Juan Carlos GARRO | 53 |
| Santi SAN MIGEL | 72 |
| Jagoba OTXOTEKO | 116 |
| Iñaki LARRAÑAGA | 125 |
| Eneko MITXEO | 128 |
| J. Jabier ELIZAINTZIN | 131 |
| Iban ZUBIETA | 134 |
| Basilio ZAPIAIN | 149 |
| Angel PONBAR | 175 |
| Jose Luis IRURTZUN | 210 |
| Josu UNSION | 212 |
| Xabino KORTA | 228 |
| Jorge ARAKUES | 230 |
| Joseba PETRIRENA | 234 |
| Aitor MITXELENA | 247 |
| Jabier IANTZI | 248 |
| Juanes OTXOTEKO | 250 |
| Jabier DAGERRE | 251 |
| Juan Luis IRATZOKI | 271 |
| Jose Miguel HUITZI | 273 |
| Tomas TEILETXEA | 282 |
| Oihan PEREZ | 295 |
| Fernando KORTA | 299 |
| Rafa PONBAR | 300 |
| Mikel IRIGOIEN | 323 |
| Jose Antonio ROZAS | 334 |
| Markel LIZASOAIN | 370 |
| **EMAKUMEZKOETAN** | |
| Maika ARIZTEGI | 7 |

SOKATIRA

# Amaiurko neskak lehen aldiz Goma Gaineko 4x4 txapelketan

## Gizonetan Amaiurrek 3 talde ditu eta nesketan Beti Gaztekoak ere ari dira

**ttipi-ttapa**

Eskualdeko bortz talde ari dira Nafarroako Goma Gaineko 4x4 Sokatira Txapelketan parte hartzen. Gizonezkoetan Amaiur A, Amaiur B eta Amaiur C eta emakumezkoetan Lesakako Beti Gazte eta Amaiur. Hain zuzen, Amaiurko emakumezkoak aurten eman dute lehen aldiz izena txapelketan.

Apirilaren 19an abiatu zen txapelketa Lesakan, eta bigarren saioa Arbizun jokatzekoa zen apirilaren 26an. Guztira hiru jardunaldi eginen dira, eta azkena maiatzaren 10ean izanen da, Iruñeko Errotxapea auzoko Ave Maria zeharbidean —euria eginez gero, kiroldegiko frontoian—, 17:00etan hasita.

Gizonezkoetan zein emakumezkoetan kategoria bakarrean ari dira. Gizonezkoak 310 kilokoetan, eta emakumeak 260 kilokoetan.

Lesakan jokatutako lehen saioan emakumezkoetan lehen aldiz aritu zen Amaiur taldea gelditu zen sailkapenaren buru, tiraldi bakarra galduta, Beti Gazteren aurka. Saio berean Beti Gazte hirugarren izan zen. Gizonezkoetan, Berriozar B eta Amaiur C gailendu ziren Lesakan, berdinketa baten ondotik. Amaiur A laugarren izan zen eta herriko B taldea bortzgarren.



Argazkia: Aitor Arotzena

**Amaiurko neskek ezustea eman zuten Lesakan jokatutako lehen jardunaldian.**

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

## ERAKUSKETAK

### URDAZUBI

**Egunero,** artista euskaldunen margo eta eskultura erakusketa 13:00etatik 19:00etara Klaustroan.

### ELIZONDO

**Maiatzaren 3ra arte,** *Ura gardena kolektiboa* pintura erakusketa Arizkunenean, 18:00etatik 20:30era.

### AZKAINE

**Maiatzaren 4a bitarte,** arteforum Bil Tokin, Herriko Etxearen gibelean. 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

## LEHIAKETAK

### BERA

**Maiatzaren 2a bitarte,** *Bidasoako Bertsopaper Lehiaketaren XXI. edizioan* parte hartzeko epea zabalik.

## IKASTAROAK

### BERA

**Ekainaren 27tik 29ra,** *Clowna naturan* izeneko 20 orduko ikastaroa, maila guztientzako. Naturan sentsibilatzeko eta norberaren clowna aurkitzeko. Informazio gehiago: 948 631162.

### ETXALAR

**Maiatzaren 7tik ekainaren 25era,** *Janari eko-energetikoen* ikastaroa. Izen ematea Larraburuan.

**Maiatzaren 9an, 10ean eta 11n,** *Kantua aitzaki* ikastaroa Amaia Zubiriarekin. Izena emateko: 609 115956 edo 618303582.

## DANTZAK

### IGANTZI

**Maiatzaren 17an,** Rocamador taldearen dantza saioa, 20:30ean.



## TELEBISTAKO TXOKOA



# Rafa Maritxalar Lesakako Herri Lasterketa ttipi-ttapa telebistan

## MAIATZAREN 5EKO JOKOA SOLAS SAIOAN

Kirol hitzordu bat baino gehiago izanen dira maiatzeko zubi honetan Lesakan. Berako GureTxokoa eta Lesakako Beti Gazteren arteko ortzeguneko Bortzirietako derbiaz gain, Rafa Maritxalar Herri Lasterketa jokatuko baita igande honetan, maiatzak 4. Batzoki elkarteak antolatutako txapelketak hamalaugarren edizioa du aurtengoa, eta maila desberdinetan banatu dute: gazteentzat A zirkuitua eta nagusiagoentzat B zirkuitua. Gazteetan aurre-benjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak eta haurrak arituko dira. Gaztetxoenek 10:00etan dute hitzordua eta hortik aitzinera gainerakoek. Nagusien txanda, 12:00etan hasiko da eta maila honetan, ezinduak, kadeteak, jubenilak, junioarrak, seniorrak eta helduak ariko dira. **Ttipi-ttapa Telebista** bertan izanen da eta lasterketako momenturik atsegin eta ikusgarrienak hurrengo asteleheneko *Jokoa Solas* saioan eskainiko ditu.

### Udaberriko Bestak Igantzin

Gainerakoan, Igantziko Euskara Batzordeak antolatuta, maiatzaren 1etik 4ra Udaberriko Bestak eginen dira aurten ere Igantzin, eta hango irudiak ere ikusgai paratuko ditu **Ttipi-ttapa Telebista**k.

## DISKAK




*Hamar t'erdietan.10.30 p.m.*
**Ruper ORDORIKA**
*ELKAR, 2008*

2006ko urriaren 26an eta 27an, gaueko 10:30ean Bilboko Kafe Antzokira hurbildu zirenek une berezi bat dastatu zuten: Ruper Ordorikak, Mugalaris taldearekin batera, eskaini zuen emankizuna, hain zuzen. Mugalaris taldearen ibilbidea Oñatiko kantariarenaren magalean garatu da. Lehen mailako musikarien eskutik, nortasunez beteriko soinu eraginkorraren eta zuzenaren bitartez. 2000. urtetik aitzinerako formazioaren musikalitate bikainarekin, Ruper Ordorikak berezko ikuspegi batetik errebisatu du bere errepertorioa eta horren guztiaren sintesia da 2006ko urriaren 26an eta 27an Bilbon zuzenean erregistratu zuen *Hamar t'erdietan. 10.30 pm* kaleratu berri duen CD/DVDa. Ibilbide koherente baten lekuko izateko jaio da, denontzat sasoi baten oroigarri izan dadin.

## BASERRIA

Datu Iturria: **Nafarroako Gobernua**
(apirilaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 32,00 € (=)

**Zerri gizena**
1,155 € kiloa. (-0,020)

**Zerramak:**
0,420€ Kg/bizirik. (-0,010)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 4,10 (-0,04)
**1.koa** 3,80 (-0,03)
**2.koa** 3,20 (-0,06)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 4,20 (-0,04)
**1.koa** 3,90 (-0,03)
**2.koa** 3,30 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen diten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 3,10/3,20
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 4,90/5,50
8-10 kilokoak: 3,90 /4,40

## JAKIN BEHARREKOAK

# Seme-alabek Interneten egiten duten erabileraz kezkatuak daude gurasoak

Hala dio Irache Kontsumitzaile Elkarteak egindako ikerketak

Irache Kontsumitzaile elkartearen aginduz Ciesek egindako inkesta baten arabera, gurasoak gero eta kezkatuagoak daude seme-alabek Interneten egiten duten erabileraz. Inkestatutakoen %62a nahiko edo hagitz kezkatua dago, baina hirutik batek bakarrik hartzen du denbora edo erabilera kontrolatzeko neurriren bat. Kontrolatzeko neurririk erabiliena, haurrek Internet nabigatzen ematen duten denbora mugatzea da, baita kontsultatu dituzten orriak begiratzea eta filtroak ezartzea ere.

Sarritan, seme-alabak gurasoak baino trebeagoak dira Internet erabiltzen. Irachek zenbait ildo eman ditu gure ttikienak Internet-en babesteko.

Interneten erabilera kontrolatzeko tresnarik egokiena filtroak dira. Horietako batzuek irudi edo hitz jakin batzuk dituzten orrietara sarbidea blokeatzen dute. Bertze batzuek gurasoek zerbitzuaren hornitzaileak edo biek aitzinetik zehaztutako orrietara mugatzen dute sarbidea. Bertze programa batzuek bisitatu diren orriak, eta chat edo e-mailetako solasaldiak monitorizatu eta jakinarazten dute eta badira Internetera sarbidea ordu zehatz batzuetara mugatzen dutenak ere. Hauetako zenbait doakoak dira, baina gehienen prezioa 20 eta 50 eurokoa da. Aipagarrienak Cyber Patrol, Custodius Nanny, ChiBrow, IamBigBrother edo Net Nanny dira.



Internetek izan duen hedapena ikusita, zenbaitetan, seme-alabak gurasoak baino trebeagoak dira tresna hau erabiltzen.

Internetetik Emule edo Elephant bezalako programen bidez jausten diren artxiboak arriskutsuak izan daitezke, artxiboaren izena ez baitator beti bat edukiarekin. Hala, haurrek indarkeria edo sexu edukiak dituzten artxiboak jautsi ditzakete eurek jakin gabe. Gainera, artxibo hauek kutsatuak egon daitezke eta deskargatzerakoan ordenagailua infektatu dezakete.

Interneten badaude ttikienek sarea modu egokian erabiltzen ikasten joateko espezializatuak diren orriak. Ttikienak Interneten munduan jolasen bidez sartzeko modua eskaintzen dute: *www.navegación-segura.es*, *www.laredytu.com*, *www.portaldelmenor.com*...

Seme-alabak heztekoeta Interneten erabilera egokia egin dezaten modurik onena, erabilera-arauak beraiekin adostea da. Azken batean, Interneti buruz seme-alabak hezi, formatu eta informatu.

## LIBURUAK




*Bizitza homeopatikoak*
**Xabier MENDIGUREN**
*SUSA, 2008*

Bat bitan banatzen den bezala, erdi bi eginda dator liburu hau: bi ipuin luzez edo bi nobela laburrez. Lehenbizikoan, Mirande liburu-dendako jabearen uda bateko ametsa hariIkatzen du. Opor-ontzi handi batean portutik portu bidaia egin zuen 2002an Greziako uharteetaraino, eta ustekabean Bilbon amaitu zen joan-etorria, Batasuna legez kanpo utzi zutela-eta manifestazio iskanbilatsuan. Bigarrenean, Europako Parlamentuko itzulpen zerbitzuan lanean ari den Mertxeren itzulirik garrantzitsuena ageri da. Prostata arazoekin okerrera egin duen aita operatzera doazenean, amak telefonoz deituko dio Bruselara: 50 urtean aitaren neskamea izaten aspertu dela eta badoala etxetik!, azkar etortzeko, ez daukala itxaroten egoteko asmorik. «Gero datorrena beti da okerragoa» gaztigatzen digu pertsonaietako batek, bizitzako bidearen erdia egina duenaren esaldi madarikatua, destino petralaren iragarle.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

**BAZTAN**
**Maiatzaren 4an,** Xaguzelaira irteera, Baztango Mendigoizaleen eskutik.

**URDAZUBI**
**Maiatzaren 3an,** Urdazubiko IX. mendi lasterketa.

### ANTZERKIAK

**DONAMARIA**
**Maiatzaren 10ean,** *Taulara* ikuskizuna, Kuko, Truko eta Bolenwaider taldeaeren eskutik. 19:00etan frontoian.

**SUNBILLA**
**Maiatzaren 11n,** *Munduan zehar* ikuskizuna, Kuko, Truko eta Bolenwaider taldearen eskutik. 17:00etan frontoian.

**ZUGARRAMURDI**
**Maiatzaren 17an,** *Munduan zehar* ikuskizuna, Kuko, Truko eta Bolenwaider taldearen eskutik. 17:00etan Sorginen Museoan.

### BESTAK

**IRURITA**
**Maiatzaren 4ra arte,** Salbatore bestak.

**URDAZUBI**
**Maiatzaren 4ra arte,** Salbatore bestak.

**BERROETA**
**Maiatzaren 9tik 12ra,** herriko bestak. Xehetasunak 27. orrialdean.

### KONTZERTUAK

**ARANTZA**
**Maiatzaren 17an,** Keltiar Aldea taldearen kontzertua 20:00etan frontoian.

**ELIZONDO**
**Maiatzaren 10ean,** Kupela taldearen kontzertua Lur Aretoan, 00:30ean.

bainugela, berokuntza eta igogailua. ☎637 559152.

**DONEZTEBE.** Aparan inguruan pisu berria salgai. Aukera ona. ☎617 461649.



**DONEZTEBE.** 100m²ko pisua salgai, Zazpigurutze auzoan. ☎639 184210.

**BERA.** Bidasoa karrikan eraberritutako etxebizitza salgai. Norbere gustura jartzeko aukera. ☎661 577137.

**DONEZTEBE.** 80m²ko pisua salgai.☎615 561458.

## ETXEBIZITZAK
### 103 Errentan eman

**ARIZKUN.** Pisu mobleztatua errentan emateko. ☎948 453146.

## ETXEBIZITZAK
### 105 Etxe konpartituak

**IRUÑA.** San Juan auzoan pisua osatzeko pertsona bat behar da. Logela errentan emanen da. ☎650 254203 (goizez deitu).

## GARAJEAK/LOKALAK
### 107 Saldu

**LESAKA.** 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

**TWIN PEAKS (San Frantzisko).** Familia euskaldun batek estudio bat errentan emanen luke epe motzetarako. San Frantziskoko Unibertsitatearen ondoan, leku lasaia eta autobus geltokitik hurbil. Harrera pribatua, bainugela, hozkailua, ohe-sofa haundia, mikrouhin-labea, telebista, garbigailua, lehorgailua . *aupasf@gmail.com.*

**BERA.** Herrigunean, 52m²ko garajea salgai. ☎609 708797.

## ZERBITZUAK
### 208 Bertzelakoak

Eskualdeko **ingeniariak** lur neurketak, nabeak edo bordak eraikitzeko eta berritzeko proiektuak, lur kalifikazio aldaketak eta iturriak salatzeko txostenak egiten ditugu. ☎628 123026.

## LANA
### 301 Eskariak

**Kamioi-gidari** batek lan egingo nuke. ☎687 149060.

**LESAKA, BERA edo INGURUAN** emakume batek eskolak, bulegoak edo aldagelak garbitzen lan eginen luke. ☎948 637874.

## LANA
### 302 Eskaintzak

**BORTZIRIAK.** Hargin/igeltsero ofiziala behar da Bortzirietan lan egiteko. ☎617755392.

**BAZTAN-BORTZIRIAK.** Eraikuntzan lan egiteko peoia behar da. Baldintza onak. ☎679189507.

**Haur bat zaintzeko** pertsona arduraduna behar da astegunetan arratsaldez eta asteburuetan. ☎948 625791/ 600 092237.

Baztan-Bidasoako Anfas elkarteak Atentzio Goiztiarreko programan 0-6 urte arteko haurrekin lan egiteko **logopeda** behar du. Bidali curriculumak: *atnorte@anfasnavarra.org* edo *Anfas, Antoiu kalea 27,2. 31770 Lesaka.* ☎680 459796.

**DONEZTEBE.** Denda batean lanaldi osoan lan egiteko pertsona behar da. Jendearekin aurre-aurreko tratuan esperientzia izatea eskatuko da. *rolami@terra.es.*

**SUNBILLA.** Kanpinean egunero lan egiteko pertsona bat behar da. ☎948 450540.

**LESAKA.** Baserri batean emakumea behar da adineko bat zaintzeko eta janaria prestatzeko. Goizez, 8:30etik 12:30era. ☎948 637968.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Xsara HDI 1.9**-90 zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urriakoa. ☎650 948330.

**Land Cruiser** 3D4D salgai, 7 plaza eta 4 urtekoa. Egoera oso onean. ☎686 485992.

**Golf GTI 1.8** T autoa salgai. 2002ko abuztukoa. 65.000 km. Xenon, mp3... Egoera onean. ☎669 916635.



**Motoa** salgai. Moto trail Honda MTX 125 R. 1992koa, merke. ☎618774322.

**Mitsubichi Montero** salgai, 7.000 km, FVL matrikula. 8 hilabete eta egoera onean. ☎659 776942.

Nissan **Terrano** II 2.7 TDI-salgai. Prezio negoziagarria. ☎679 432522.

**Gas gas Enducros** 250 motorra salgai, 2004koa. Trajearekin eta oso egoera onean. ☎615 736586.

## MOTORRA
### 502 Tailerrak

**MENDAUR MOTOR**
948 450333 • DONEZTEBE
**SUZUKI**
(gasolina eta diesela)
**MITSUBISHI**
(luze eta laburrak)
**TURISMOAK**

## SUNBILLA
### 2008KO UDAKO DENBORALDIAN IGERILEKUA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA

SUNBILLAko Udalak, lehiaketa bidez adjudikatu nahi ditu igerilekuen mantenimendu eta garbiketa lanak 2008ko udako denboraldian (ekainaren 15etik irailaren 15era).

Aipatu lehiaketan parte hartu nahi dutenek Sunbillako Udalaren idazkaritzan dituzte proposamenak aurkezteko baldintza-pleguak eta argibideak.

Proposamenak aurkezteko epea 2008ko maiatzaren 15ean, eguerdiko 2etan, bukatzen da.

ALKATEA, Francisco Errandonea







**TALLERES SANTESTEBAN**
948 450282 • DONEZTEBE

**ESKAINTZAK**
Renault Scenic 1.5 DCI, 2007koa
Clio III 1.5 DCI, 2007koa
Espace 2.0 DCI KM0
Kangoo 1.5 DCI, 2007koa
Suzuki Santana, 2006koa

**BIGARREN ESKUKOAK**
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen Saxo 1.9 D, Renault Laguna 2.2 D, Peugeot 406, Clio Confort 1.5 DCI, Megane Coupé 1.9 DTI 100 CV, Citroen C-15 1.8 D, Peugeot 309 1.C.

## MOTORRA
### 503 Bertzelakoak

Interneten gustuko duzun atzerriko kotxe bat aurkitu baduzu, eta ekartzeko aukerarik ez baldin baduzu, guk ekarriko dizugu, eta zure izenean matrikulatuko dugu. ☎636 772310.

## ANIMALIAK
### 601 Emateko

**Zakurkume** bat oparitzeko. ☎637 990197.

## ANIMALIAK
### 602 Salerosketak

Bi hilabeteko **lau zakurkume** salgai, Spaniel-Breton arrazakoak. ☎948 599114 (gauez deitu).

**LESAKA.** Ahate bikotea erosiko nuke, agindura egotzen dakitenak eta kolore bizikoak. ☎948 637264.

2 hilabeteko **aretzea** salgai. ☎661 767027.

Setter arrazako **hiru zakurkume** salgai. Maiatzaren 22an hiru hilabete eginen dituzte. Txertatuak eta parasituak kenduak dituztela entregatuko dira. 200 euro. ☎661 821645.

Border-Collie arrazako **zakurkume batzuk** salgai. ☎651 074865.

## urtebetetzeak

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.** www.ttipi.net



**Egoi Irigoien Arretxea.** Zorionak Egoi zure bigarren urtebetetzean familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat.



**Ane Irigoien Ibañez.** Zorionak Ane Sunbillako familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat berexiki Egoiren partetik.



**Naroa Santesteban Otxandorena** zubietarrak 6 urte bete ditu apirilaren 15ean. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.



**Lorea Maia Santesteban** Iruñeko sorginak 3 urte bete ditu apirilaren 19an. Zorionak eta mila muxu Sunbillako familiaren partetik. Zorionak printzesa.



**Ane,**
Maite zaitugu, gogoratzen zaitugu. (Amak).



**Asier Guelbenzu Maisterrenak** 4 urte beteko ditu maiatzaren 5ean. Zorionak Katixa, Onintza eta Naroaren partetik.



**Iraide Sagardia** gazteluarrak apirilaren 18an urteak bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez Haizea, Saray, Jone eta Juditen partetik. Aupa pexoxa, ez aldatu inoiz. KPMZ.



Sunbillako **Egoik** apirilaren 19an bi urte bete ditu. Zorionak Maialen, Iradi, Oier, June, Janire, Ibai, Oihan, Xuban, Ane, Ekaitz eta Eneiten partetik.



**Erik Gartzia** doneztebarrari lau mila muxu apirilaren 29an 4 urte bete dituelako, eta bere anaia Danieli urte askotarako apirilaren 6an urteak bete zituelako, ia 14. Zorionak guraso, Eloy, Thalia eta familia guztiaren partetik.



**Zumai Txoperena Eugi** igantziarrak 10 urte beteko ditu maiatzaren 7an. Aunitz urtez eta zorionak familia guztiaren partetik.



**Maria Martin Baiona** etxalartarrak maiatzaren 10ean urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat gure printzesari Etxalar eta Lesakako familiaren partetik.



**Jon** eta **Beñat Iriarte Mikelperizenak** 7 eta 4 urte beteko dituzte maiatzaren 1ean eta 10ean. Zorionak eta muxu potolo-potoloak bikote!



**Julene Mitxelena Lasaga** beratarrak maiatzaren 2an 2 urte eginen ditu. Muxu aunitz pottoka familiaren partetik.



**Julene Mitxelena Lasaga** beratarrak maiatzaren 2an 2 urte beteko ditu. Egun ona pasa eta bertze urte auntz bete ditzazula. Muxu haundi bat zure guraso eta berexiki Ekhiñe ahizparen partetik.



Gure bi nexka ttikienek, **Araitz** eta **Josune Madariagak**, apirilaren 24an eta maiatzaren 2an, 5 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak Arantzako familia guztiaren partetik.



**Eneritz Perez Alejos** beratarrak apirilaren 30ean bete ditu 4 urte. Etxeko ttikia ari da koxkortzen eta familia bere urtebetetze guziak kontent kontent ospatzen. Zorionak eta aunitz urtez!



**Aimar Telletxea Iraola** igantziarrak 8 urte beteko ditu maiatzaren 15ean. Zorionak eta muxu haundi bat zure familiaren partetik.



**Ane Telletxea Iraola** igantziarrak 2 urte beteko ditu maiatzaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat zure familiaren partetik.



**Izaro Torres** beratarrak maiatzaren 9an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta amatxiren partetik.



Sunbillako **Janirek** 12 urte beteko ditu. Zorionak Ekiñe, Iradi, Maialen, Egoi, Oier, Xuban, Ane, June, Ibai, Ekaitz, Eneit eta Oihanen partetik.



**Felipe Ugaldek** urteak beteko ditu maiatzaren 9an. Zorionak *Alkixa* familia guztiaren partetik eta ongi pasa eguna!



**Luis Saharreak** apirilaren 22an, **Carmen Endarak** apirilaren 25ean eta euren biloba **Joseba Martikorenak** maiatzaren 18an 3 urte beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik.

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

**Leongo mastinak** salgai, 2 hilabete, arrak eta emeak aukeran. Etxe eta abereak zaintzeko aproposak. Txertatuak eta parasituak kenduak. ☎637 466110.

## DENETARIK

### 701 Galdu/aurkituak

**BERA.** Jamoteneako atean Ortzegun Gizen egunean 'monedero' bat aurkitu da . ☎948 630856.

**LESAKA.** Kaja urdin ilun batean betaurrekoak galdu dira. ☎948 637543.

**LESAKA.** Oilagor zakurzuria desagertu da apirilaren 12an. ☎948 637543.

**LESAKA.** Gazte Egunean, goizeko 4ak aldera, Xaruta eta Koxkilla artean Renault baten giltzak aurkitu dira. Giltzarriak 'Gazte' dioen taulatxo bat du. ☎948 635458.

**DONEZTEBE.** Apirilaren 20ko goizean, sakeleko telefonoa galdu da autobus geltokian. Nokia N70 beltza. ☎606 126331.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

Antzinako egurrezko **xukadera** (platerak idortzeko altzaria) erosiko nuke. Berria edo bigarren eskukoa, paretan zintzilik paratzeko. ☎677 822248.

Ehizarako **kamuflajeko** 26m²ko **sareak** salgai. Kotxeak, ehiza postuak, txabolak eta abar estaltzeko. Merkea eta ona. ☎629317086.

Tresna zaharrak salgai: **arbia xehetzekoa** eta **lurra iraultzekoa**, egoera onean. Etxe atarian jartzeko aproposak. ☎659 236299 (19:00etatik aitzinera deitu).

## HARREMANAK

### 801 Agurrak

**Jaione Bergara** aranztarrak 24 urte beteko ditu maiatzaren 14an. Aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat lagunen partetik.

Besarkada bero bat **Joseba**, **Imanol**, **Inaki**, **Itur**, **Sanse**, **Ainara**, **Mattin** eta **Igor**ri! Presoak etxera!



**Janire Apeztegia** sunbildarrak maiatzaren 12an 12 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki Ibai eta Juneren partetik.



**Hodei Aioroa Apeztegia** iturendarrak maiatzaren 5ean 9 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat etxekoen partetik.



Irungo **Mirari Etxeberriak** apirilaren 4an 6 urte bete ditu. Zorionak eta 6 muxu haundi Xune, Unai, Jone, Aimar eta Landerren partetik.



Irungo **Aimar Etxeberriak** apirilaren 27an 2 urte bete ditu. Zorionak Xune, Unai, Jone, Mirari eta Landerren partetik. Bitxito!!



**Unai Olazireg**i beratarrak apirilaren 29an 10 urte beteko ditu. Muxu haundi bat etxekoen partetik.



**Olaia Altzuri** eta **Itxaso** eta **Irati Mindegiak** maiatzaren 2an eta 24an 9 eta 11 urte beteko dituzte. Zorionak Aurtizko lagunen partetik. Berendu goxo goxoa prestatu!


Gurasoentzako ikastaro laburra
Gozatu seme-alabekin jostetan, kantuan...!
Talo, talo, txin gure haurra bortz otxin...
Oharrak
• Haurrak eramaten ahal dira, ikastaroak irauten duen bitartean zaintzaileak izanen baitira.
• Gurasoez gain aitatxi-amatxiak, zaintzaileak, hezitzaileak... joaten ahal dira.
• Matrikula: 15 €
Egunak: Maiatzak 20, 22, 27 eta 29 (astearte-ortzegunak)
Ordutegia: 17:00etatik 19:00ak arte
Tokia: Berako haurtzaindegia
Izen ematea: 948634125 tfnoan, maiatzaren 16ra arte
Antolatzailea:
BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA


Muebles
Telletxea
DONEZTEBE • Rosa Seminario, 12
Tfnoa.: 948 450 258 • 948 451 811

# Lur

maiatzak 10 larunbata

# KUPELA

00:30 9€

maiatzak 17 larunbata



# EROTIK

## GAU BEROENA LUR ARETOAN!!

01:00 10€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

maiatzak 24 larunbata

## LUR D JOTAK | Ritxi & Nash

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

maiatzak 31 larunbata

Gaztelu Abesbatza
\+

## Mikel Urdangarin

23:00 10€

Laguntzaileak:

01:00etatik aurrera 8€ kontsumizio batekin 03:30ak arte

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA
LURELIZONDO.COM

Heineken

Baztango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK